

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
Etxebizitza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
POLITICAS SOCIALES
Dirección de Vivienda

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

URTEKO TXOSTENA 2014. URTEA

**URTEKO TXOSTENA
2014. URTEA**

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

AURKIBIDEA

1.- AURREKARIAK	3
2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK.....	5
3.- IRISGARRITASUNAREN ARLOKO LAGUNTZA-JARDUKETAK	27
3.1.- Aholkularitza-zerbitzua eta kontsulten ebazpena	27
3.2.- Laguntza teknikoa Batzorde Iraunkorrari eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari	33
4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI HELARAZI ZAIZKION GAIEN LABURPENA	36
4.1.- Txosten-eskaerak eta kontsultak	36
4.2.- Salbuespenen jakinarazpena	41
5.- LAGUNTZA EKONOMIKOEN DEIALDIAK, UDALEK IRISGARRITASUNAREN ALORREKO PLANAK ETA OBRAK EGIN DITZATEN (EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA)	60
6.- IRISGARRITASUNAREN ALORREAN EGINDAKO JARDUKETEI BURUZKO INFORMAZIOAREN IGORPENA	81



1.- AURREKARIAK

Honako xede hau betetzeko eman zen abenduaren 22ko 20/1997 Legea, Irisgarritasuna Sustatzekoa: irisgarritasuna bermatzeko hiri-ingurunean, eremu publikoetan, eraikinetan, garraiobideetan eta informazio- eta komunikazio-sistemetan, pertsona guztiek autonomiaz balia ditzaten haiek, eta, bereziki, mugikortasun urritua dutenek, komunikatzeko zailtasunak dituztenek eta, aldi baterako edo betirako, bestelako muga psikikoak edo zentzumenezkoak dituztenek.

Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legearen V. tituluak IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA sortzen du 24. artikulua bidez, kontsultarako eta partaidetzarako organoa izateko. Ordezkariek dituzte organo horretan euskal administrazio publikoek, irisgarritasun-zailtasunak dituzten pertsonen eskubideak babestearen alorrean ordezkaritza handiena duten elkarteek, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteek, sustapenaren eta eraikuntzaren alorretako elkarte handienek eta arkitektoen, aparejadoreen, eta bideetako, ubideetako eta portuetako ingeniarien elkargoek. 20/1997 Legearen 25. artikulua arautzen ditu haren osaera eta egitura.

Hauek dira, 26. artikulua arautzen duena aintzat hartuta, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren egitekoak:

- a) Urtean behin txosten bat egitea, lege honek arautzen duena zer mailataraino betetzen den ezagutarazteko, eta gero Legebiltzarrera bidaltzea.
- b) Irisgarritasunaren arloan aginpidedun diren organoei laguntza eman eta jarduteko irizpideak proposatzea, lege honetan xedatutakoaren arabera.
- c) Horren antolamendu eta funtzionamendurako araudia onestea.
- d) Bere esku uzten diren beste egiteko batzuk.

Hori horrela, 1997ko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak, agintzen dion egitekoa betetzeko, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2014. urteko txostena aurkezten da agiri honetan.

2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak osoko bilkura bat egin zuen 2014ko irailaren 29an, 2013. urteari zegokiona.

Kontseiluaren osoko bilera horren akta ekarriko da hona, eta bilera horretan aztertu ziren gaien zerrenda adieraziko da. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren hurrengo osoko bilkuran onartuko da akta hori.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2014ko irailaren 29an egindako bilera.

PARTE-HARTZAILEAK:

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidenteordea
Gizarte Politiketako sailburuordea
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Eusko Jaurlaritza

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Idazkaritza
Etxebizitzako zuzendaria.
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Eusko Jaurlaritza

Turismo Zuzendaritza.
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Trafiko Zuzendaritza
Segurtasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Garraio Azpiegituren Zuzendaritza
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Eusko Jaurlaritza

Baliabide Orokorreren Zuzendaritza

Ogasun eta Finantza Saila
Eusko Jaurlaritza

Baliabide Materialen eta Azpiegituren Zuzendaritza
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
Eusko Jaurlaritza

EUDEL Bizkaia

Arabako Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

FEDERPEN - Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Pentsiodun eta Erretiratuen
Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioa.

ELKARTEAN Gipuzkoa

ELKARTEAN Araba

ONCEren Lurralde Kontseilua

COAVN (Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala)

Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniariaren Kolejioa.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK:

Irisgarritasun Batzordea - EUSKAL GORRAK

EKE – Euskadiko Kontsumitzaileen Elkartea

LAGUNTZA TEKNIKOA:

AGUSTÍN DE LORENZO URIEN JAUNA
Etxebizitza Zuzendaritzako teknikaria.
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Eusko Jaurlaritza

JAVIER REGALADO HERRERO JAUNA
Irisgarritasun-arloko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren arkitektoa

SAGRARIO ITURRATE EGUILUZ and.
Irisgarritasuneko Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren abokatua

2014ko irailaren 29an, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkura bildu zen.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko idazkari eta Etxebizitzako zuzendari Iñigo Basañez jaunak adierazi duenez, ezin izan da bertaratu Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidente eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Juan Maria Aburto Rike jauna.

Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna izan da bilerako presidentea, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidenteorde den aldetik, presidenteak, Juan Maria Aburto Rike jaunak, eskuordetuta, eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak onetsita.

Josune Etxeberria andrea aurkeztu dizkie, Arartekoko bulegoko Modernizazio Arloko eta Desgaitasunen bat duten Pertsonen Arloko arduradunak, hurrenez hurren, eta hitza eman die, beste erakunde batzuekin egindako “Arartekoaren Mapak” proiektuaren diseinua eta abiaraztea azal dezaten.

Inmaculada de Miguel andreak adierazi du Arartekoaren Bulegoari Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkuraren bilerara bertaratzeko eginiko gonbidapena, besteak beste, irisgarritasunaren kontzeptuari lotuta dagoela.

Inmaculada de Miguel andreak adierazi du, nahiz eta Arartekoaren bulegoaren jarduera ezagunena bideratzen zaizkion kexa-espeditenteei erantzutea den (100.000 kexa baino gehiago 25 urtean), Arartekoak gainera hurbiletik lan egiten duela bere jardueraren helburu diren pertsonen errealitateak ezagutzeko beren antena diren

gizarte-erakundeekin. Era berean, De Miguel andreak jakinarazi du Arartekoaren bulegoak oso tresna baliosua duela bere lana betetzeko: aparteko txostenak, saiatzeko antzematen zein diren eremu jakin batean dauden beharrak eta, diagnostikoa oinarri hartuta, administrazioei gomendioak bidaltzeko.

Desgaitasunen bat duten pertsonen arloak 2013. urtean aparteko txostena egin zuen, EAEko eraikin publikoen irisgarritasunaren egoeraren inguruan, eta 2011-2012 urtean, beste aparteko txosten bat egin zuen, EAEko garraio-sistemaren irisgarritasunari buruzkoa.

Besteak beste, Inmaculada de Miguel andreak uste du bi ondorio daudela azpimarratzeko. Lehenengo ondorio esanguratsua da EAEko herritarren % 40k, gutxi gorabehera, zailtasunei egin beharko diela aurre bizitzako uneraren batean, daukaten mugikortasun murriztuaren ondorioz. Bigarren ondorio esanguratsua da informazio osoa eta eguneratua oinarritzak dela, arazoei eraginkortasunez egiteko aurre. Ez da nahikoa informazio puntuala izatea; zerbitzuen kate osoaren gaineko informazioa behar da.

Aurreko premisetan oinarrituta, "Arartekoaren Mapak" ekimena egin da, erakunde-proiektu gisa; bertan, hainbat administrazioek eta kolektibok esku hartzen dute, eta herritarren esku dago, kontsultarako ez ezik, parte-hartze aktiborako ere.

Geolokalizazioko proiektua da, mapaketa parte-hartzailekoa, eta sarbide eta bistaratze publikoko mapa elkarreragilean puntuen, eraikinen edo interes orokorreko espazioen irisgarritasunari buruzko informazioa jartzean datza. Informazioa herritarrek osa edo egiazta dezakete, eta alternatibak proposa ditzakete.

Irisgarritasun-mapa bat sartu nahi da; horren bidez, erraz islatu nahi dira espazio eta inguruneetako irisgarritasun-baldintzak. Ibilbide irisgarriak kontsulta daitezke, eta kontsultatzen den gune bakoitzak kontsultatutako gunetik hurbilen dauden turismo-eta garraio-baliabideen eta liburutegien zerrenda agertuko da.

Inmaculada de Miguel andreak jakinarazi du une honetan mapak 3.000 baliabide ingururen berri ematen duela. Horietako nahikotxo Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak irisgarritasun turistikoaren programaren esparruan jasotako informazioaren ondoriozkoak dira; beste batzuk, Liburutegien Zerbitzuaren ondoriozkoak, eta garraioaren arloko irisgarritasunari buruzko informazioa aurretik aipatutako Arartekoaren bulegoak eginiko aparteko txostenetik atera da.

Informazioa grafikoki aurkeztu da, Eusko Jaurlaritzaren irisgarritasun turistikoaren programaren ikonoen sistemaren bidez, eta espazioak aniztasun funtzionaletara nola egokitzen diren ebaluatu da, semaforoen sistema baten bidez.

Programaren balio erantsietako bat da aukera ematen duela informazioa dutenek elkarri eragiteko; horrela, oharrak egin daitezke edo datuak aurkez daitezke, plataformaren informazioa eguneratzen edo egiaztatzen dutenak.

Programa 2012ko abenduan jarri zen martxan eta, erabilgarritasuna hobetzeko, aurreikusi da hura gailu mugikorren bidez ikusteko aukera ematea.

Inmaculada de Miguel andreak nabarmendu du tresna honen ahalmenaren garapen eraginkorrerako administrazioen, elkarteen eta herritarren parte-hartze aktiboak duen garrantzia, kontuan hartuta irisgarritasun unibertsalaren beraren zeharkakotasuna.

Josune Etxeberria andreak aipatzeko modukoa dela uste du tresnaren birtualtasuna, onerako zein txarrerako, irisgarritasunaren egoera erreala islatuko baitu; aipatzen du EAEko garraioaren arloko irisgarritasunari buruzko aparteko txostenean jasotako diagnostiko sinplea oso garrantzitsua izan zela, batez ere trenbidearen garraioaren inguruan eta hori programa honetan islatzen da, non dagoeneko egindako egokitzapen asko jasotzen diren. Era berean, oso positiboki baloratzen du tresna horrek elkarteen parte-hartze aktiboa ahalbidetzea, eta jakinarazten du Arartekoaren bulegoa egiten ari den hurrengo txostenaren ondorioak –ospitale-sistemaren irisgarritasuna– programan ere sartuko direla.

Era berean, Josune Etxeberria andreak aipatu du elkarteek ingurune batzuetako –esaterako, hondartzak edo kirol-instalazioak– irisgarritasunaren egoerari buruzko informazioa edukitzeko erakutsi duten interesa; eremu horretan, ahalmen handia ikusten dio tresnari.

Iñigo Pombo jaunak eskerrak eman dizkie Inmaculada de Miguel eta Josune Etxeberria andreei Batzordera bertaratzearren, bai eta kideei informazioa ematearren ere.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak oso positiboki baloratzen du Arartekoaren ekimena eta sortutako tresna, izan ere, baliabideen irisgarritasun-egoerari buruzko ahalik eta informaziorik gehien edukitzeak lagundu egiten du, zalantzarik gabe, herritarren egunerokotasunean. Garrantzitsua deritzo gaur egun irisgarritasunari buruzko udal-planetan eta beste administrazio publiko batzuetan jasota dagoen informazioa tresna honetan jasotzea.

Iñigo Pombo jaunak Iñigo Basañez jaunari –Euskal Kontseiluko idazkaria eta Etxebizitzako zuzendaria– eman dio hitza, eta, Arartekoaren bulegoko ordezkariak Batzordean egoteagatik eskerrak eman ondoren, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkurara bertaratutakoak gonbidatu ditu aurkezpenen txanda egitera, jarraian, batzordekideei emandako deialdian proposatutako GAI ZERRENDAREkin hasteko.

LEHENENGO PUNTUA: AURREKO KONTSEILUAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA (2012ko IRAILAREN 25a).

Iñigo Basañez jaunak bozkatzeko jarri du aurreko osoko bilkurako akta, aurretik Euskal Kontseiluko kide guztiei bidali zitzaiena.

Kontseilukideek akta onetsi dute, eta ez diote edukiari alegaziorik aurkeztu.

ERABAKIA: 2013ko irailaren 25eko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkuraren akta onartzea.

BIGARREN PUNTUA: IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN 2013ko IRAILAREN 25eko OSOKO BILKURAREN ONDORIOZKO JARDUKETAK

Ignacio Basañez jaunak, Kontseiluko idazkariak, hitza eman dio Sagrario Iturrate andreari, Laguntza Zerbitzuko letradunari, 2013ko osoko bilkuran hartutako erabakien ondorioz egindako jarduketei buruzko informazioa emateko. Horrela, Iturrate andreak hauxe jakinarazi du:

- a) ISEKek Eustat-Estatistika Erakundeari txostena eman dio, Kontseiluaren aurreko bileran erabaki zen bezala, “eraikinaren barrura sartzeko irisgarritasunaren” ingurukoa.

Sagrario Iturrate andreak Kontseiluko kideei osoko bilkuraren deialdiarekin batera bidali zitzaien dokumentu erantsiari egin dio erreferentzia.

Dokumentu horretan jakinarazi da, informazioa lokalen eta eraikinen zentsuan sartzean kontuan hartzeko, irisgarritasunaren inguruko indarreko araudiaren

arabera “eraikinaren barrura sartzeko irisgarritasuna” zer kontzeptuk zehaztuko duen.

Hau da:

Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen 2000ko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren III. eranskineko (“ERAIKINETAKO IRISGARRITASUNARI BURUZKO BALDINTZA TEKNIKOAK”) 4. artikuluko (“ERAIKINAREN BARRURA SARTZEA”) 1. zenbakian (“Sarbideak”) xedatutakoarekin bat, “Eranskin honen 1. artikuluan aipatutako eraikinen sarbideek eraikinen barrualderako irisgarritasuna bermatu beharko dute eta kanpoko zoladuraren **maila berean egongo dira**”. Beraz, ezin da irisgarritzat hartu eraikin bat beste kasu batean, baldintza hau betetzen den kasuan izan ezik: “mailak eta eskailerak, eranskin honetan ezarritako baldintzak beteko dituzten arrapalen bidez osatu beharko dira”.

- b) Eustat–Estatistika Erakundeari helaraziko zaio ONCE elkarteko Lurralde Kontseiluko ordezkariak proposatutako eskaera, Eraikin eta Lokalen Zentsuan errotuluak braille hizkuntzan dauden baloratzeko datua ere txerta dezan.

Sagrario Iturrate andreak jakinarazi du Kontseiluak Eustat - Estatistika Erakundeari ONCE elkarteko Lurralde Kontseiluaren eskabidea bidali zaiola, Eraikin eta Lokalen Zentsuan –horien irisgarritasunari dagokion informazioan– errotuluak braille hizkuntzan dauden baloratzeko datua ere txerta dezan.

Iturrate andreak esan du, eskabidea kontuan hartuz gero, informazioa egin beharreko hurrengo zentsuan sartuko litzatekeela, 2020. urtekoan, haren hamar urteko aldia kontuan hartuta.

- c) Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari egindako eskaerari buruzko informazioa, Kontsumo Gelak Bilbon duen lokalaren irisgarritasunaren baldintzei buruzkoa.

Sagrario Iturrate andreak jakinarazi du Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak, kideei emandako dokumentuan agertzen den bezala, Kontseiluari jakinarazi diola beharrezko esku-hartzeak egingo dituela Bilbon dagoen institutuko bulegoetan dauden arkitektura-oztopoak ezabatzeko. Jakinarazitakoaren arabera, lokala 2013ko abenduaren 26tik ari dira erabiltzen. Era berean, Kontsumoko Euskal Institutuak jakinarazi du ez dagoela arkitektura-oztoporik Kontsumobidek zerbitzua edo arreta ematen duen lokal batean ere.

- d) Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari - Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari egindako eskabidea, Euskotrenen unitateei eta Vitoria-Gasteizko tranbia irisgarritasun-araudira egokitzeko obrei buruzkoa.

Sagrario Iturrate andreak esan du, nahiz eta ez dagoen Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari - Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari egindako bi eskaeren erantzun-dokumenturik eta ez dakigun elkarte interesdunek horien gaineko informaziorik jaso duten, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak –bere jardun-eremuan 2013. urtean egindako jarduketei buruzko informazioa ematean–, Euskotrenen unitateen inguruan, Elkarturekin (Gipuzkoako elkarte), ETSrekin (azpiegituraren eta estazioen enpresa arduraduna) eta Euskotrenekin (enpresa jardulea) izandako harremanak aipatu ditu, eta, era berean, Vitoria-Gasteizko tranbia dela eta EAEJAGren epaiaren ondoriozko egoerari buruzko informazioa eman du.

Sagrario Iturrate andreak Kontseiluaren 2013. urteko Urteko Txostenaren 90. eta 93. orrialdeetara jo du, xehetasun handiagoz ikusteko Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak - Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak bi gai horiei buruzko emandako informazioa.

Ignacio Basañez jaunak hitza eman dio Almudena Ruiz de Angulo andreari, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Garraio Azpiegituren zuzendariari, eta hark, Vitoria-Gasteizko tranbiaren obren inguruan, esan du, nahiz eta Sailak eta Eginaren Eginezek eztabaidarako foroa duten eta, horren bidez, harremanak izan dituzten gaia aztertzeke, paraleloan

Auzitegiaren errekerimenduak jasotzen dituztela, eta hori, Ruíz de Angulo andrearen iritziz, harrigarria da.

Eginaren Eginezen ordezkariak dio, beren zerbitzu juridikoak adierazten dienaren arabera, prozedura judizialak bere bidea jarraitu behar duela, judizioz kanpoko eremuan aldean artean dauden elkarrizketekin paraleloan. Era berean, adierazten du Sailak aurkeztutako egokitzapenen proposamena zati batean elkarteak epaiak xedatutakoaren arabera jotzen dituen era egokitzen dela. Bere iritziz, besteak beste, makina saltzaileek jarraitzen dutela izaten konpondu gabeko arazoa eta, gaur egun, Elkartea eskatu duen aditu baten txostenaren zain dagoela eta hura Sailari eta Auzitegiari bidaliko diotela.

Almudena Ruiz de Angulo andreak gaur egun araudira egokitzen den makina saltzaileen eredu aurkitzeko dagoen zailtasuna aipatu du eta, era berean, esan du hori garraioaren agintaritza bakarra eta baliogabetze-sistema goitik behera aldatuko duen txartel bakarra ezarri nahi dituen aldaketaren testuinguruan gertatzen dela. Aldaketa-prozesu horrek denbora-tartea behar du konponbide egokia, bateratua eta koordinatua emateko.

Iñigo Pombo jaunak adierazi du ziur dagoela bi aldeek adostasuna lortuko dutela, izan ere, ez du beren borondatearen eta gaitasunaren inguruko zalantzarik.

e) Web-edukiak zeinuen hizkuntzara egokitzea – Euskal Gorrak-en Irisgarritasun Batzordearekin izandako harremanak.

Sagrario Iturrate andreak aipamen laburra egin du egindako egokitzapen-prozesuaz eta gai-zerrendako puntu honen abiapuntuaz. Adierazi du Kontseiluaren 2013ko irailaren 25eko osoko bilkuran Euskal Gorrak baloratu zuela Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren webgunean egindako aldaketek, zeinuen hizkuntzara egokitzeko, zenbait huts zituztela eta, bere

iritziz, erraz konpondu zitezkeela. Juan Maria Aburto jaunak, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko presidentek, gaia aztertzeko eta –Euskal Gorrakekin batera– bere irisgarritasun-batzordeak antzeman zituen hutsuneak betetzeko neurri egokienak baloratzeko aukera planteatu zuen.

Proposatutakoarekin bat eta zenbait harreman eduki ondoren Euskal Gorraken Irisgarritasun Batzordearekin, erakundeak aurkeztu duen proposamena itzulpen geroratuaren zerbitzuaren antzekoa da, baina ez da bakarrik Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren webgunearen edukiak itzulita sartzea edo egon daitezkeen hutsuneak betetzea, proposamena aztertu eta beste maila batean baloratu beharko baita.

- f) Eusko Legebiltzarrari bidali zaio Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren txostena, 2011. eta 2012. urteetako.

Kideei jakinarazi zaie Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2011. eta 2012. urteetako txostena Eusko Legebiltzarrari bidali zitzaiola, osoko bilkuraren aurreko bileran hala egitea onetsi ondoren.

HIRUGARREN PUNTUA: ISEK-EN WEBGUNEKO EDUKIA 2013an EGINDAKO ARAUDI ALDAKETETARA EGOKITZEA.

Sagrario Iturrate andreak jakinarazi du, iaz egindako araudi-aldaketen ondorioz, eragina jasan duten Kontseiluaren webguneko edukiak aldatu direla. Hori izan da jabetza horizontaleko araudian egindako aldaketen kasua –2013ko ekainaren 26an onetsitako birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzko 8/2013 Legeak sartutako aldaketak, hain zuzen–.

LAUGARREN PUNTUA: 68/2000 DEKRETUAREN IV. ERANSKINEKO 2.3 ARTIKULUA –SEINALEZTAPEN SISTEMEN HOMOLOGAZIOA– ITSUEN

ERAKUNDE NAZIONALAREN (ONCE) EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ORDEZKARITZAREN EGOKITASUN TXOSTENA

Kontseilukideei jakinarazi zaie seinaleztapen-sistemak –parametro desberdinetan– erregulatzen dituen oinarrizko araudia onartzean eta kontuan hartuta horiek brailleko egokitzapen-sistemaz harago doazela, aztertzen ari direla zer neurri diren egokiak bikoiztasunik eta nahasketarik egon ez dadin operadoreetan, batez ere ONCEk oinarrizko araudian parte hartu duela kontuan hartuta.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak uste du ez dela egokia ezartzea, gaur egungo Dekretuak aurreikusten duen bezala, erakunde bakarrak eman ahal izatea egokitasun-txostena. Hori eta oinarrizko araudiak seinaleztapen-sistemetan zer parametro hartu behar den aintzat ezartzen duela kontuan hartuta, badirudi zentzugabea dela kontrol bikoitza ezartzea, braillera egokitzeko.

Agustín de Lorenzo jaunak azaldu du zergatik eskatu zuten ONCEren Lurralde Ordezkaritzak emandako egokitasun-txostena, testuak braille eran zuzen egokitzeari buruzkoa; izan ere, ez zegoen horren inguruko oinarrizko araudirik. Oinarrizko araudia onetsi ondoren, aurreikuspen horrek zentzua galdu zen.

ONCEren Lurralde Kontseiluaren ordezkariak adierazi du Vitoria-Gasteizen behintzat akats larriak antzeman dituztela atarien brailleko errotulazioan. Kasu batzuetan, brailleko zenbakiak ez datoz bat atarietako zenbakiekin eta, beste batzuetan, zenbakia ondo egonik ere, ezin da irakurri. Hori udal-irisgarritasunaren batzordeari ere jakinarazi zaio. Vitoria-Gasteizko Udalak erantzun du ez duela braillearen gaineko prestakuntza duen langilerik beharrezko kontrola egiteko, eta, beraz, ONCEren Lurralde Kontseiluak jakin nahi izan du zer administrazio izango litzatekeen eskuduna alderdi horiek kontrolatzeko.

Sagrario Iturrate andreak, Laguntza Zerbitzuko letradunak, uste du lizentziak eta baimenak emateko administrazio eskuduna izan behar dela 20/1997 Legearen 15. eta 17. artikuluetan xedatutakoaren arabera, esku-hartzeak irisgarritasunaren inguruan indarrean dagoen araudira egokitzen dela egiaztatzen duena, kasu honetan, Vitoria-Gasteizko Udala.

ONCEren Lurralde Kontseiluaren ordezkariak planteatu du gai hori ONCEk Udalarekin berriro aztertzeko aukera, irtenbide bat bilatzeko. Erantzunik egon ezean, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak esku hartzeko eskaintza egin du, Udalari eskatzeko egokitzat jotzen diren neurriak hartzeko.

Proiektuan seinaletikaren arduradun den teknikariak izan dezakeen erantzukizuna planteatzen da.

EHAEOren ordezkariak baloratzen du edozein obra-zuzendarik -braille hizkuntza ezagutzen ez duelako- zailtasunak edukiko lituzkeela gai horiek kontrolatzeko, udal-teknikariei gertatzen zaien bezala. Horrenbestez dio egokia litzatekeela ONCErekin zubi bat eratzea horrelako kontuetarako.

ONCEren Lurralde Kontseiluaren ordezkariak esan du ONCEk braille hizkuntzan errotuluak nola egin behar diren azaltzeko dokumentazioa ematen duela eta erakusten dieten errotulu bat braille hizkuntzan ondo idatzita dagoen eta esan nahi dena esaten den jakiteko kontsultei erantzuten diela.

Ignacio Basañez jaunak ONCErekin elkargo profesionalekin dauden hitzarmenen esparruan akordioaren bat ezartzeko aukera planteatzen du, obra-amaieran seinaletika braillera zuzen egokitzen dela egiaztatzen duen txostena jasotzeko.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak uste du horrek eragingo lukeela berriro eskatu behar izatea egokitasun-txostenaren antzekoa, kontuan hartuta baloratu berri dugula ez dela beharrezkoa.

Javier Regalado jaunak, Laguntza Zerbitzuko arkitektoak, uste du gai honen gainean ere obra-zuzendariak egiazta ezin ditzaketen obraren beste alderdi batzuetan jarduten den bezala jardun daitezkeela (dela gaitasun teknikorik ez dagoelako, dela baliabiderik ez dagoelako in situ egiaztapen jakin batzuk egiteko, esaterako, lauza jakin bat C3 dela). Kasu horietan, enpresa hornitzaileak hura egiaztatzen duen ziurtagiria aurkezten du.

BOSGARREN PUNTUA: IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN 2013 EKITALDIKO URTEKO TXOSTENA AURKEZTEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.

Kontuan hartuta txostena aurretik Kontseiluko kideei bidali zaiela, bilera honen deialdiarekin batera, Ignacio Basañez jaunak, Kontseiluko idazkariak eta Etxebizitzako zuzendariak, haren alderdi esanguratsuenen laburpena egin du.

Ignacio Basañez jaunak esan du 2013an egindako kontsultetatik, % 50, gutxi gorabehera, Bizkaian egin direla, % 30 Gipuzkoan eta % 20 Araban.

Elkartean Gipuzkoako ordezkariak planteatzen du ea ez dagoen informazioa bideratzeko beste modurik; izan ere, ez zaio logikoa iruditzen urtero Bizkaitik egiten den kontsulta-kopuruak ehuneko handiagoa izatea, lurralde historikoaren herritar-kopuru handiena izateagatik.

Ignacio Basañez jaunak adierazi du txostenak modu askotara egin daitezkeela eta kontsulteren jatorri den lurralde historikoaren itema txostenak islatzen duen askoren arteko bat dela. Horrela, kontsulteren jatorri den lurralde historikoa gorabehera, txostenak kontsultak jasotzen dituen erabiltzaile-profilen arabera (profesionalak, erakunde pribatuak, erakunde publikoak, partikularrak), eremu publikoaren barruko profilen arabera (udalak, aldundiak, Eusko Jaurlaritza, beste erakunde publiko batzuk), eremu pribatuko profilen arabera (jabe-

erkidegoak, profesionalak, enpresak), kontsulten oinarri den gaiaren arabera (kontu teknikoak, kontu juridikoak, laguntza ekonomikoak).

Ignacio Basañez jaunaren ustez aipatzekoa da 2013an sortutako kontsulten kopurua, birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzko ekainaren 26ko 8/2013 Legearen onespeneren ondoriozko kontu juridikoei buruzkoak eta, zehatzago esateko, Jabetza Horizontalaren Legean egindako aldaketen ondoriozkoak.

Elkartean Gipuzkoako ordezkariak interesa erakutsi du etxebizitzaren erreserbarekin eta txostenean aipatzen den desafektazio-prozedurekin lotutako kontsulten gorakadak promozio libreari edo babestuari buruzkoak diren jakiteko.

Agustín de Lorenzo jaunak jakinarazi du Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko Zerbitzuak eta Idazkaritzak bakarrik kudeatzen dituztela desafektazio-prozedurak promozio libreetan.

Elkartean Gipuzkoako ordezkariak kexatu egin da Gipuzkoan erreserbatutako etxebizitza babesturik ezagatik, dela erosteko erregimenean, dela alokatzeko erregimenean.

Ignacio Basañez jaunak, alokatzeko erregimenean aurreikusitako gizarte-etxebizitza erreserbatuak direla eta, dio Bizkaian erreserbaren onuradunek egindako eskari-falta dagoela eta, promozio libreen kasuan, desafektazio-espeditate guztiek aurretiko eskaintza exijitzen diotela udalerrian edo probintzian mugikortasun murriztu etengabea duten pertsonen elkarteari. Hala ere, Basañez jaunak konpromisoa hartzen du Gipuzkoan sustapen babestuko etxebizitzaren erreserba kudeatzeko gaia aztertzeke.

Elkartean Gipuzkoako ordezkariak uste du erreserbatutako etxebizitzak ere egokituta eduki beharko liratekeela, nahiz eta desgaitasunik ez duten pertsonen saldu, etxebizitza egokituen kopurua areagotzeko eta pertsona guztien mugikortasuna ahalbidetzeko, zahartutako herritarrei ez ezik, ezarri nahi diren

zahartze aktiboko politikei ere emateko arreta, pertsonak beren etxebizitzetan gera daitezen errazteko. Aipatzen du mugikortasun murriztua duten pertsonak ia beti jasotzen eta artatzen dituztela beren etxean, ezin baitira beste etxe batzuetara sartu, ez bisita egitera ere, beharrezko irisgarritasun-baldintzak betetzen ez dituztelako.

Sagrario Iturrate andreak, Kontseiluko kide batzuek adierazitako zalantzak kontuan hartuta, jakinarazi du, sustapen babestuaren eremuan, araudiak aurreikusten duen erreserba dela 1 etxebizitzakoa 25 bakoitzeko edo frakzioko. Sustapen pribatuaren eremuan, araudiak 1 etxebizitzaren erreserba aurreikusten du 50eko edo frakzioko, 50 etxebizitzatik gora. Garajeen erreserba dela eta, aurreikusi den erreserba da 1 garaje-partzela erreserbatuta 40ko edo frakzioko.

Sagrario Iturrate andreak jakinarazi du, sustapen librearen eremuan, desafekzioa eskatzeko aurretik egiaztatu behar dela prentsa bidez argitaratu dela erreserbak daudela sustapenean, udalerrian edo probintzian mugikortasun murriztua duten pertsonen elkarteari erreserbatutako elementuen berri eman zaiola edo, elementu ez-erreserbatuen 2/3, gutxienez, saldu egin direla edo salmentarako konprometitu direla eta obraren gauzatze materialaren aurrekontu osoaren % 50etik gora gauzatu dela.

Etxebizitza baten erreserba-izaerak dakar mugikortasun murriztu iraunkorra duen pertsona batek bakarrik eskuratu ahal izatea, eta eroslearen baldintza berezietara egokituta egon beharko du. Erreserba-izaera galtzean, etxebizitza beste edozein pertsonak eskura dezake eta haren diseinua, sustapen librearen eremuan, sustatzailearen eta eroslearen artean adostutakoaren irizpidearen menpe geratzen da.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak uste du etxebizitza desafektatuak egokituen baldintza fisikoekin bat eginez gero eta horrela mantentzeko betebeharra ezarriz gero, etxebizitza libre egokitu ugari edukiko liratekeela, bat-batean horren beharra eduki dezakeen publikoari orokorrarentzat.

Ignacio Basañez jaunak, 2013ko urteko txostenarekin jarraitzeko, esan du jabetza horizontalaren araubidea bete behar duten eraikinen baterako elementuetan arkitektura-oztopoak ezabatzeko kontsultak ere ugari izan direla.

Basañez jaunak, Euskal Kontseiluari emandako eta jakinarazitako salbuespenen inguruko txostenaren atala dela eta, dokumentuan salbuespenezko espedienteen inguruan jasotzen diren datuak gogorarazi ditu. Nabarmendu du informatutako espediente gehienak EAEko hiru udali dagozkiela, eta baloratzen ari dela, toki-erakundeei irisgarritasun-planak egiteko eta eguneratzeko eta irisgarritasun-obrak gauzatzeko zuzendutako diru-laguntzen hurrengo deialdian, emandako salbuespenei eta justifikazioari buruz jakinarazteko udal-idazkariaren ziurtagiria aurkezteko eskatzea.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkaritzak interesa erakutsi du, igogailuaren kabinako dimentsioak direla eta salbuespena ematen den kasuetan, kabinak gurpil-aulki konbentzionala sartzeko aukera ematen duen jakiteko.

Sagrario Iturrate andreak jakinarazi du salbuespenen baterako ezaugarria dela obra berrirako aurreikusitako irisgarritasun-baldintzak bete ezin izan direnean eta irisgarritasun-irizpideak bezain exigenteak ez diren erabilgarritasun-irizpideak aplikatu ezin izan direnean ematen direla. Kasu horretan, lizentzia salbuespenarekin ematen da; izan ere, udal-teknikariaren iritziz, baloratzen da planteatutako esku-hartzeak, ahal den neurrian, hobetu egin dituela lehen eraikinak zeuzkan irisgarritasun-baldintzak. Horrek esan nahi du salbuetsitako kabinak dimentsio txikikoak izaten direla eta, sarritan, higiezinen eskailera-zuloaren espazio-mugagatik dela; izan ere, nahiz eta esku-hartzen denean sarritan eskaileraren zabalera murrizten den igogailuaren kabina jarriko den hutsunea zabaltzeko, espazioak mugatua izaten jarraitzen du.

Jarraian, Ignacio Basañez jaunak udalei, toki-erakunde txikiagoei eta onura publikoko helburu sozialak dituzten erakunde pribatuei zuzendutako diru-laguntzen aginduaren ebazpena aipatu du –2013ari dagokiona–, eta esan du

deialdiari bideratutako partida ekonomikoa 1.800.000 eurokoa izan zela eta onuradunak 110 udal eta 2 fundazio izan zirela. Ehunekotan, % 12 Arabarako, % 38 Bizkairako eta % 48 Gipuzkoarako.

2013ko urteko txostenaren azken atala dela eta, Ignacio Basañez jaunak esan du Euskal Kontseiluak Eusko Jaurlaritzako sailei eta hiru aldundiei eskatu ziela beren eremuetan 2013an irisgarritasunari buruz egindako jarduketan gaineko informazioa. Basañez jaunak Kontseiluari bidalitako informazioari buruzko aipamen laburra egin du eta, xehetasun gehiagorako, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko kideei osoko bilkuraren bilerarako deialdiarekin batera emandako txostena aipatu du.

Eginaren eginez-en ordezkariak esan du, Osasun Sailak emandako informazioaren inguruan, Vitoria-Gasteizko Irisgarritasuneko Udal Kontseiluaren bidez, kolektibo batzuek Arabako Unibertsitate Ospitalea eta Zabalganako Osasun Zentroa bisitatu zituztela. Bisita egin ondoren, aipatu du irizpena eman dela eta, bertan, besteak beste, jasotzen dela komunek, bai langileenek bai erabiltzaileenek, gabeziak dituztela, irisgarritasunaren inguruan indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraiki. Horrela, bada, obra berria denez, Eginaren eginez-en ordezkariak esan du harritura dagoela, Osasun Sailak bere txostenean aipatu duelako instalazioak araudira egokitzen direla, eta bisitatik ez delako gauza bera ondorioztatzen.

Iñigo Basañez jaunak ulertzen du Gasteizko Irisgarritasuneko Udal Kontseiluak irizpena Osasun Sailari bidaltzen dionean, hark araudira egokitzeko eta ahal den guztian irisgarritasun-baldintzei laguntzen dieten iradokizunei erantzuteko beharrezko egokitzapenak egingo dituela.

Eztabaida amaituta, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko osoko bilkurako kideek 2013ko urteko txostena onetsi dute.

ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2013ko txostena onartzea, Eusko Legebiltzarrera bidaltzeko.



SEIGARREN PUNTUA: IRISGARRITASUN PLANAK EGITEKO ETA EGUNERATZEKO, HOBEKUNTZA OBRAK BURUTZEKO ETA HIRI-INGURUNEAN ZEIN ERAIKINETAN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO BEHARREZKOAK DIREN EKIPAMENDUAK EROSTEKO UDALENTZAKO ETA TOKI ERAKUNDE TXIKIENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEN DITUEN DEIALDIAREN BERRI EMATEA.

Ignacio Basañez jaunak jakinarazi du, 2014ko uztailaren 30eko Aginduaren esparruan (2014-09-08ko EHAA, 169. zenbakia), deialdi horretara bideratzen dela 2.500.000 euroko partida ekonomikoa.

Basañez jaunak jakinarazi du luzatu egin dela irisgarritasuna hobetzeko obren jarduketak egiteko ezarritako epea, denbora materiala ez egoteagatik, udalek laguntzei uko egin behar ez diezaieten. Aginduak, udalen aldetik dagoen eskari handia kontuan hartuta, lehentasun batzuk aurreikusten ditu, laguntzak emateko, eta gutxieneko kopuru batzuk bermatzen ditu, diruz lagundutako jarduketak gauza daitezzen ahalbidetzeko. Deialdiak irisgarritasun-planak egitea eta degradatutzat jotako edo birgaitze integraleko aitortutako eremuen barruan gauzatzen diren obrak egitea sustatzen du.

Ignacio Basañez jaunak jakinarazi du, aurretik aipatutako laguntzen deialdiaren esparrua gorabehera, mantenduko direla jabe-erkidegoentzako laguntzak, arkitektura-oztopoak kentzeko obrak egiteko, eta adierazi du, eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko diru-laguntzen eremuan, eraikinen irisgarritasun-baldintzak baloratzea exijituko dela, eskuragarri dagoen informazio-maila zabaltzeko eta horretan oinarrituta laguntzen ildo diseinatze baldintza egokienak zein diren baloratu ahal izateko.

Diru-laguntzen deialdia dela eta, FEDERPENen –Euskadiko Erretiratu eta Pentsiodunen Federazioa– ordezkariak esan du berea bezalako elkarteentzat dauden mugek ekarri dutela gizarte-helburuak dituzten erakunde pribatuei exijitzea “onura publikoko” izaera egiazta dezatela, diru-laguntza lortu ahal

izateko. Hurrengo deialdietarako eskatu du aurreikusteko elkarteek diru-laguntzak eskatzeko aukera izan dezatela, nahiz eta “onura publikoko” izaera egiaztatu ez. Iñigo Basañez jaunak esan du aztertuko dutela Odriozola jaunaren iradokizuna.

ZAZPIGARREN PUNTUA: GALDERAK ETA ESKAERAK.

Agustín de Lorenzo jaunak, Arartekoaren bulegoak martxan jarri duen proiektuaren harira, uste du interesgarria izango litzatekeela gobernuko sailek, beren webguneetan, irisgarritasunari buruzko atal berezi bat izatea, bertan beren bulegoetako irisgarritasun-baldintzei buruzko informazioa eseki ahal izateko, bai eta horietara heltzeko ibilbide irisgarriari eta sail bakoitzak irisgarritasunaren inguruan hartutako ekimenei (ikastaroak, diru-laguntzen ildoak, laguntza-zerbitzuak) buruzkoa ere; horrela, herritarrek eroso eskuratu ahalko dute informazio hori. De Lorenzo jaunak esan du, gainera, Kontseiluaren webgunean sail bakoitzarekin harremanetan jartzeko estekak jar daitezkeela, herritarrek informazioa sail bakoitzaren webgunearen eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren webgunearen bidez eskuratu ahal izateko. Kontseiluko kideek ez dute gaiaren inguruan ezer esan.

Iñigo Pombo jaunak gaia aztertzeko aukera planteatu du eta Agustín de Lorenzo jaunak proposatu du Arartekoaren bulegoarekin harremanetan jartzea, xehetasun gehiagoz jakiteko nola garatu duten beren proiektua eta aurreikusteko mapen informazioa eskuratzeko bidea.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak interesa erakutsi du EuskoTrenen unitate berrien egokitzapenaren inguruan dagoen aurreikuspenaz.

Almudena Ruíz de Angulo andreak, Garraioko Azpiegituren zuzendariak, jakinarazi du sailak CAFi beharrezkoak diren egokitzapenak urtean zehar



egiteko plana eskatu diola, baita unitateak kentzeak zerbitzuan izan ditzakeen gorabeherak zehazteko ere.

Ruíz de Angulo andreak esan du bere saila EAEko garraioaren irisgarritasun-baldintzen alde egiteko erabat prest dagoela eta, araudiari dagokionez, zalantzan jartzen du gaur egun dagoen erreserbaren % 2 nahikoa ote den, kontuan hartuta mugikortasun-arazoak dituzten herritarren gorakada zenbatekoa den.

Sagrario Iturrate andreak esan du aurreikusitako araudia gutxiengoena dela, beraz, zerbitzuagatik, behar handiagoa antzematen bada, egokitu daitekeela erreserba antzematen diren beharretara.

Euskadiko Erretiratu eta Pentsiodunen Federazioaren ordezkariak esan du kezkatuta dagoela areagotu egin direlako etxebizitzak erabiltzaileen bat-bateko beharrietara egokitu behar diren kasuak, eta horrek familiei dakarkien gastuagatik, kontuan hartuta ez dituztela beti behar dituzten baliabideak. Beraz eskatu du esku-hartze mota horretarako laguntza-sistema bat baloratzeko.

Iñigo Pombo jaunak esan du, Bizkaian, Aldundiak laguntza-ildo bat duela esku-hartze horietarako.

Sagrario Iturrate jaunak jakinarazi du, hiru foru-aldundiek aurreikusitako zerbitzuez gainera, erabiltzaileen beharretara gehien moldatzen diren egokitzapenei dagokien aholkularitza ere ematen dutela kontuan hartuta, indarrean jarraitzen duela Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Birgaitzeko Aginduak eta horrek ere etxebizitzaren barruan egindako esku-hartzeetarako diru-laguntzak aurreikusten dituela. Bi diru-laguntza ildo horiek bateragarriak dira.

José Manuel Odriozola jaunak, Euskadiko Erretiratu eta Pentsiodunen Federazioaren ordezkariak, uste du erabiltzaileentzako laguntza-plan eskuragarria eta tramitazio errazekoa diseinatu behar dela.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren ordezkariak interesa erakutsi du eraikinen ikuskaritza teknika egiteko diru-laguntzaren gainean.

Ignacio Basañez jaunak jakinarazi du eraikinen ikuskaritza teknika egiteko diru-laguntza jarduketarako diru-laguntza osoaren beste zati bat bezala aurreikusi dela, ez diru-laguntzako partida independente gisa.

Beste gairik ez dagoenez, amaituzat eman da Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkurak 2014. urtean egindako bilera.

Jarraian, HARTUTAKO ERABAKIAK transkribatu dira:

1. ERABAKIA: 2013ko irailaren 25eko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkuraren akta onartzea.
2. ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Batzordearen 2013ko txostena onartzea, Eusko Legebiltzarrerara bidaltzeko.

3.- IRISGARRITASUNAREN ARLOKO LAGUNTZA-JARDUKETAK

Honako hauek dira programaren jarduketa-eremuak:

- Aholkularitza-zerbitzua ematea eta kontsulta teknikoak eta juridikoak ebaztea.
- Laguntza teknika ematea Batzorde Iraunkorrari eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari.


3.1.- Aholkularitza-zerbitzua eta kontsulta tekniko eta juridikoen ebazpena:

EAEn indarrean den irisgarritasun-araubidea eta, zeharka, irisgarritasunarekin lotuta dauden beste araudi batzuk interpretatzeko kontsulta teknikoak eta juridikoak barne hartzen ditu zerbitzu honek, eta, arkitektura-oztopoak kendu eta irisgarritasuna hobetzeko dauden diru-laguntzen ildoetarako buruzko orientazioa ematen du.

Laguntza ematen zaie horren beharrean dauden administrazio publikoei, erakunde juridikoei eta pertsona fisikoei, irisgarritasun-araubidea betetzeko den jarduketa-eremuei buruzko orientazioa ematen du, eta interpretazio-irizpideei buruzko


txostenak ematen ditu. Gerora, denborarekin, txosten horiek aplikazio-irizpide eraginkor bilakatu dira.

Zerbitzuak 2014an artatutako kontsultak direla eta, ondoriozta daiteke, jatorri duten **lurralde historikoaren** arabera (*ikus 1. grafikoa*), Bizkaiak egin duela kontsultakopuru gehien (% 54,30), gero Gipuzkoak (% 34,84) eta, azkenik, Arabak (% 10,41). Kontsulta gutxi egin dira beste autonomia-erkidego batzuetatik (% 0,45).




(1. grafikoa)

Aintzat hartuz gero zer **erabiltzaile-profilek** egiten dituen kontsultak (*ikus 2. grafikoa*), ikusten da partikularrek eginak direla kontsulta gehienak (% 53,98). Haien atzetik datoz entitate edo administrazio publikoek egindakoak (% 20,85), erakunde pribatuek egindakoak (% 16,87) eta profesional liberalenak (% 8,28).




(2. grafikoa)

Erakunde edo administrazio publikoek 2014. urtean egin dituzten kontsultei erreparatuz gero (ikus 3. grafikoa), ikusten da toki-erakundeek eginak direla administrazioek egindako kontsulta guztien % 92,45.




(3. grafikoa)

Esparru pribatuan (ikus 4. grafikoa), 2014. urtean, jabeen komunitateak eta banakako jabeak dira kontsulta gehien egin dituztenak (% 51,79), eta haien atzetik datoz, bigarren lekuan, zerbitzura jo duten profesional liberalak eta enpresak (% 48,22).



(4. grafikoa)

Kontsulten gaiari begiratu gero (ikus 5. grafikoa), zerbitzuak 2014. urtean hartu dituen kontsulta guztien % 90,05 alderdi juridikoei buruzkoak edo diru-laguntzen ildoari buruzkoak izan dira, eta % 9,95 kontsulta teknikoak izan dira.



(5. grafikoa)

Kontsulta juridikoen kopuru handia etengabea da, eta mantendu egiten da, bai eta hazi ere, urteko ekitaldi bakoitzean, estatu- eta autonomia-mailako legegintza-jarduera oparoaren ondorioz.

Era berean, nabarmentzekoa da nahiko sarri egiten direla araudi askotarikoei buruzko kontsultak, eta horiek lotuta daudela, zeharka bada ere, zentzu hertsian irisgarritasunari buruzkoa den araudiarekin. Horrela, errealitate horren adierazgarri dira jabetza horizontalari buruzko araudia, 8/2013 Legea, ekainaren 26koa, birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzkoa edo Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta beren gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak preskribatutako irisgarritasun-baldintzen egokitzapenen irismena.

Jabeen komunitateek egiten dituzten kontsultetan, sarritan gertatzen da galdera teknikoak edo irisgarritasun-araudiari buruzkoak egiten direla hasiera batean eta horrela jasota geratzen direla, baina, gerora, bestelako galdera batzuk egiten dira maiz, eremu komunitarioko bizikidetzari buruzkoak, hartu beharreko erabakien formalitateei buruzkoak, pertsona partikularren eskubideen arteko talkei buruzkoak, betetzekoak diren araudiei buruzkoak edo egin nahi diren jarduerentzat dauden diru-laguntzen ildoei buruzkoak.

8/2013 Legeak, ekainaren 26koak, birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzkoa onesteak, ekarri zuen, besteak beste, Jabetza Horizontalari buruzko Legea aldatzea, eta horrek kontsulta ugari eragin ditu gaiaren inguruan, bai partikularren aldetik bai abokatuen eta administrazio publikoen aldetik.

Era berean, eraikinen ikuskaritza teknikoa erregulatzen duen araudiaren ondorioz, jabeen komunitateak, finken administratzaileek eta profesional liberalek interesa erakutsi dute irisgarritasunak esparru horretan izan behar duen irismenaren gainean. Profesional liberalek uste dute ez dela egokia eraikinek dituzten irisgarritasun-baldintzen diagnostikoa egin eta antzemandako gabeziatarako egon daitezkeen irtenbideak –irisgarritasunari buruzko araudi teknikoarekin bat– aurkeztu behar dituzten teknikariek beste gai baten inguruko kontu horietan sartu behar izatea, besteak beste, komunitateen kuotak edo egon daitezkeen diru-laguntza ildoak; izan ere, baloratzen dute kontu horiek finken administratzaileei, jabeen komunitateei edota araudiak ezarritako galdagarritasun-epeak betetzen direla egiaztatzeko beharrezko jardun-irizpideak zehaztu beharko dituzten administrazio publikoei dagozkiela.

Aipatutakoaren ildoan, Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta beren gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua onesteak izan duen eragin garrantzitsua

antzeraman da; izan ere, ezartzen du irisgarritasunaren inguruan beharrezko egokitzapenak gehienez zer datatarako egon behar duten burututa.

Banakako kontsultak, oro har, telefonoz egin eta hartu dira; hitzordu pertsonalak behar izan dituzten kontsulta gehienak talde bat osatzen zuten pertsona kaltetu edo interesdunekin egin dira. Kasu horietan, taldeko kideek aurrez aurre azaldu nahi zituzten haien zalantzak, talde moduan (haien komunitatean arkitektura-oztopoak kentzeko obrak abiarazteko izendatuak izan diren auzokideak, lagunek edo senideek lagunduta gerturatzen diren pertsona partikularrak, edo udaletako lantalde teknikoak, irisgarritasun-araudia aplikatzeko garaian interpretazio-zalantzak izan dituztenak). Hala ere, egin dira hitzordu pertsonal batzuk banakako kontsultei erantzuteko, baina, azaldu dugun moduan, ez da ohikoa izaten halakoak egitea. Oro har, gai puntualei buruzko galderak egiten dituzte banakoek, erantzun azkar eta dinamikoak behar dituztenak, eta horregatik izaten da telefono bidezkoa haiek erantzuteko modurik egokiena.

Zerbitzuak erantzun dituen kontsulten ebaluazioa egin ondoren, ondoriozta daiteke oinarritzako araudia eta hura garatzen duena Europako araudi-esparrura egokitzeko legegintzako jarduera handiak eta gai beraren gaineko zuzenbide publikoko eta zuzenbide pribatuko arauak bateratzearen ondoriozko arazoek agerian uzten dutela gai honen gaineko espezializazio-falta profesionalen eta administrazio publikoen aldetik. Hala ere, egindako kontsulten indizeak, era berean, agerian uzten du borondate positiboa dutela, jarduteko eskumena izanik ere, nola egin ez dakitenean, gaiaren inguruko ezagutza espezializatua ez dutelako.

3.2.- Laguntza teknikoa Batzorde Iraunkorrari eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari.

Beste jarduera-adar batean, laguntza tekniko eta juridikoko zerbitzua ematen zaie Batzorde Iraunkorrari eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari, EAEn indarrean dagoen irisgarritasun-araudiarekin lotutako gaietan.

Hauek egin dira esparru horretan:

A.- Araudiaren esparruan eta irisgarritasunari buruzko aurreikuspenen inguruko alderdietan:

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Turismoko Zuzendaritzak eskatuta eta Donostiako Udaleko teknikariek inplikaturik, EAEko establezimendu turistikoek eskatutako irisgarritasun-irizpideak argitzen eta zehazten lan egin dute.
- Azalpenak eskatu zaizkio Sustapen Ministerioko Arkitekturako, Etxebizitzako eta Lurzoruko Zuzendaritza Nagusiari, Jabetza Horizontalaren Legean egindako aldaketaren inguruan, 8/2013 Legea, ekainaren 26koa, birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzkoa onestearen ondorioz; izan ere, araudiak zalantzak eragiten ditu eta arazoak dakartza jabetza horizontalaren araubidea bete behar duten eraikinetako irisgarritasun-baldintzen ezarpen eraginkorrean.

Lankidetzaren Arkitekturako, Etxebizitzako eta Lurzoruko Zuzendaritza Nagusiko Segurtasun eta Irisgarritasun Arloarekin-Sustapen Ministerioko Arkitekturako eta Eraikuntzako Zuzendariordetza Nagusia, CTE-SUA SEGURIDAD DE UTILIZACIÓN Y ACCESIBILIDAD (CT/CTE-SUA) Batzorde Teknikoari DA Arrazoizko Egokitzapenak dokumentuari buruz aurkeztutako alegazio eta oharren bidez, bertan gainerako autonomia-erkidegoekin eta aholkulari teknikoen talde independenteekin batera lan eginez.

B.- Laguntza-eginkizunetan, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkura, 2013. urteari dagokiona, prestatu eta dokumentatu da. Bilkura hori 2014ko irailaren 29an egin zen.

Bilkura egin ondoren, haren akta idatzi zen eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak hartutako erabakiak kudeatu ziren, eta horien jarraipena egin zen.

Arartekoaren bulegoarekin inplikaturik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza teknikoak eta Euskal Kontseiluak fitxa-eredua diseinatu du, eraikin publikoen irisgarritasun-baldintzak biltzeko.

Elkargo profesionalen eta elkargokideen lana errazteko, proiektuen irisgarritasun-baldintzen kontrol-fitxaren eredu baten gainean lan egin da, eta irisgarritasunaren inguruan sakabanatuta dagoen indarreko araudia laburtu da.

C.- Beste laguntza-eginkizun batzuetan:

C.1 PRESTAKUNTZA:

- Jardunaldiak antolatzea:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko laguntza teknikoko zerbitzuko eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko letradunak, Sagrario Iturrate Eguiluz andreak, bi jardunaldi eman ditu (apirilaren 12an eta maiatzaren 19an) 2014an, HAEE-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak administrazioko funtzionarioei ematen dizkien jardunaldien esparruan: Irisgarritasuna eraikinen ikuskaritza teknikoaren esparruan, eta 8/2013 Legea eta JHLn duen eragina.

Bi jardunaldi horiek EAeko udal-teknikarien taldeei bideratuta zeuden, bai eta jarduera-eremu eta/edo prestakuntza horri lotutako profesionalei eta masterreko ikasleei ere.

- Irisgarritasunaren inguruan Eraikuntzako Kode Teknikoan sartutako berritasunei buruzko jardunaldira joatea. Donostia. 2014ko azaroaren 11. GIPUZKOAKO AATEOren KABINETE TEKNIKOA.
- Jardunaldia: “Jabetza Horizontala. Jabetza Horizontaleko Legearen aldaketa, ekainaren 26ko 8/2013 Legearen, birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzkoaren, eraginez”. Bizkaiko Abokatuen Bazkun Ohoretsua.

C.2. FUNTZIONALA - OPERATIBOA:

Era berean, Batzorde iraunkorreko laguntza-zerbitzuak eta idazkaritzak aurretik emana eman dute eta Etxebizitzako Zuzendaritzak euskarri eman die Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak kudeatutako etxebizitzaren sustapen libreak desafektatzeko espedientei. 2014an izapidetutako eskaera-espedienteak zortzi (8) izan dira.



4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI HELARAZI ZAIZKION GAIEN LABURPENA

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak erantzun dituen kontsultek irisgarritasunaren gaia lantzen dute, zuzenean edo zeharka. Kontsulta horien artean daude, besteak beste, indarrean den irisgarritasun-araudiaren interpretazioari buruzkoak, jarduera-eremu bera arautzeagatik betetzekoak diren beste araudi batzuei buruzko kontsultak, eta administrazio-prozedurei nahiz finantza-laguntzei buruzkoak.

Araudiaren aplikazio-eremuari buruzko kontsulten indize handiena mantentzen da, irisgarritasun-araudiak gaur egun duen sakabanaketagatik (estatu- eta autonomia-mailakoa) eta araudi berriak onesteagatik, besteak beste, 8/2013 Legea, ekainaren 26koa, birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzkoa, edo Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta beren gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, irisgarritasunaren eremuan ere baitute eragina. Jarraitzen dute etengabeak izaten Jabetza Horizontalaren Legearen aplikazioaren inguruan sortutako zalantzak eta xedapenen argitasun ezagatikoa, horrek dakartzan ondorioekin.

4.1.- Txosten eta/edo esku-hartzeen eskabideak: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari 13 espedientetan parte hartzeko eskatu zaio 2014. urtean, bai txostenak edo erantzunak emateko, bai haietan esku hartzeko.

- Txostena eskatzeko 13 espediente
- 2 salaketa-espediente

Erregistro	Erakundea	Lurraldea	Gaia
01.14 ACC	Udala	Araba	Oinezkoentzako pasabideak ezartzea. Araudien interpretazioa.

Erregistro	Erakundea	Lurraldea	Gaia
02.14 ACC	Banakoa	Bizkaia	Irisgarritasuneko irizpideen aplikazioa; erabilgarritasuna versus irisgarritasun-araudia betetzeko salbuespena.
03.14 ACC	Udala	Araba	Aparkatzeko txartelak. Araudi erregulatuak. Hondakinak biltzeko edukiontziei buruzko araudiaren aurreikuspenak.
04.14 ACC	Udala	Araba	Oinezkoentzako pasabideak ezartzea. Araudi-exijentziari buruzko zalantzak.
05.14 ACC	Udala	Araba	Hondakinak biltzeko edukiontziei buruzko araudiaren aurreikuspenak.
06.14 ACC	Eusko Jaurlaritza		Komunikazio bertikalari buruzko araudi-irizpideak, araudiaren interpretazioari buruzko zalantzak.
07.14 ACC	Udala	Gipuzkoa	Sektore turistikoko araudia interpretatzeko zalantzak.
08.14 ACC	Banakoa	Bizkaia	8/2013 Legeak JHLn egindako aldaketen interpretazioa.
09.14 ACC	Banakoa	Bizkaia	Irisgarritasuna JHLren eremuan.
10.14 ACC	Udala	Gipuzkoa	Obra nagusia egoitza-zentroan. Gipuzkoako Foru Aldundia. Araudia ez ezagutzea.
11.14 ACC	Udala	Gipuzkoa	Ostalaritzako establezimendua eta komun irisgarrien xedapena. Araudiaren aplikazioari buruzko zalantzak.
12.14 ACC	Udala	Bizkaia	Barruko igogailuaren instalazioa. Araudira egokitzeko arazoak eta zalantzak.
13..14 ACC	Banakoa	Araba	Komunikazio bertikala etxebizitzaren eraikinean. Gatazka judiziala. Araudiaren interpretazioa.
01.14 DEN	Elkartea	Araba	Zerbitzuen egokitzapenik eza. Administrazio eskudunari igorri zaio.
02.14 DEN	Elkartea Osasun Ministerioa	Bizkaia Madril	Esku-hartze desegokia hiri-ingurunean. Esku-hartzea baloratu, administrazio eskudunari bidali eta Osasun Ministerioari ematen zaio haren berri, Desgaitasunari Laguntzeko Politiken Zuzendaritza Nagusiari.

Zerbitzuak artatutako kontsultak aztertu dira, bai telefono bidez egin direnak bai txostena bidaltzeko izan direnak, eta hau ondoriozta daiteke:

1. Aplikatzekoa den araudiaren inguruan dagoen nahasmendua sakabanaketaren eta onesten eta/edo aldatzen ari den arau-kopuru handiaren ondoriozkoa da, kontuan hartuta horiek, aldi berean, zati batean edo osorik aldatzen dutela kasu batzuetan dagoen araudia eta, beste batzuetan, harekin bateragarriak direla.
2. Administrazio publikoek adierazi dute langile aditu gutxi dagoela beren sailetan irisgarritasuna lanbide dutenak, eta horrek zailtasunak dakartzala lan-dinamikan; beraz, zaila iruditzen zaie dituzten espedienteak kudeatzea eta/edo gaiaren inguruko araudi berriak garatzea.
3. Udaletako irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko laguntza ekonomikoen kopurua handitzea eskatzen dute toki-erakundeek, baita arkitektura-oztopoak kentzeko laguntzen kopurua handitzeko ere, esku-hartze horiek garestiak direla eta aurrekontu mugatuak dituztela argudiatuta.
4. Toki-erakundeek, era berean, eraikinen ikuskaritza teknikoaren kudeaketaren inguruan duten arduraren adierazi dute, bai eta irisgarritasun-eskakizunen inguruan txostenak egiten dituzten teknikariek eta jabeen komunitateek aurkezten dizkieten zalantzen gainean ere.
5. 2013ko ekainaren 26ko 8/2013 Legeak, birgaitzeari, hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzkoak, aldaketak eragin ditu jabetza horizontalari buruzko araubidean, eta, horren ondorioz, nabarmen handitu da jabetza horizontalaren alorreko kontsulten kopurua (“urtero jasanarazitako gastua”, “derrigorrezko gastua eta Batzordean onartzeko premiarik eza”). Sartutako aldaketak nahasiak eta anbiguoak direla uste da, eta, ondorioz, eztabaida eta gatazka eragiten dituzte.
6. Gaur egungo araudia baino lehenago zeuden eraikinetan igogailuak jartzeari buruzko arazoarekin lotutako kontsulta ugari.
7. Araudia betetzeko derrigortasuna salbuesteko aukerei buruzko kontsulten kopurua, 68/2000 Dekretuko V. eranskinak arautzen duenari erreparatuta.
8. Arkitektura-oztopoak kentzeko laguntzen eta diru-laguntzen ildoei buruzko informazioa eskatzen da, lan horiek garestiak izaten direlako eta jabeen komunitate askok diru-arazoak izaten dituztelako.

9. Kontsulta asko egin dira bizitegi-erabilera duten eraikinetan arkitektura-oztopoak kentzeko lanen inguruan, eta bereziki, lan horien nolakotasunari eta derrigortasunari dagozkion alderdi teknikoak kontsultatu dituzte, bai jabeen komunitateetako ordezkariak bai finken administratzaileek, baita udal-teknikariak ere. Kontsulta horien artean, galdetu da derrigorrezkoa den ala ez igogailua garajeetara, trastelekuetara, komunitate osoaren gunetara eta teilatupeetara eramatea. Sarri egiten dira, era berean, beste kontsulta hauek: arauak agindutakoak baino igogailu txikiagoak jartzeko aukerarik ba ote dagoen galdetzekoak, arkitektura-oztopoak kentzeko lanek eskaileren zabaleran izan ditzaketen eraginei buruzko kontsultak eta suteen aurkako arauari buruzkoak.
10. Kontsulten kopuruak handia izaten jarraitzen du 68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren inguruan (araua indarrean jarri aurreko urbanizazioetan eta eraikinetan birgaitzeko, handitzeko edo aldatzeko lanak egitea), erabilgarritasun-irizpideak bete eta interpretatzeko alderdietan.
11. Handitu egin da sustapen libreko etxebizitza-erreserbaren eta desafekzio-prozeduren gaineko kontsulten kopurua.
12. Eremu komunak (trastelekuak, eskailerak, korridoreak, komunikazio bertikala, etab.) dira etxebizitza berriei buruzko kontsulta gehienek xedea.
13. Jabeen komunitateetan, ohiko akatsa izaten da arrapalek bete behar dituzten baldintzak (malda-mailak, zabalerak, etab.) salbuestea, laguntza teknikoak jarri beharrean (lehenik eta behin, plataforma bertikala jartzea da araua, eta, halakorik egin ezin baldin bada, plataforma zehar bat jarri behar da; izan ere, bada bete beharreko hurrenkera-ordena bat). Gogoan izan behar da ezin dela araua betetzea salbuetsi, baldin eta betegarriak baldin badira erabilgarritasun-irizpideak (laguntza teknikoak barne).
14. Etxebizitza erreserbatuen egokitzapenei aurre egiteko garaian, maiz egiten dira bainugelen egokitzapenei buruzko kontsultak, eta gai horri buruzko kontsultak egiten dira, era berean, etxebizitza libre zaharren gainean, baldin eta egokitzapenak behar baldin badituzte haien jabeak adinekoak direlako. Kasu horietan, era berean, egokitzapen horiek egiteko laguntza ekonomikoei buruzko galderak egiten dira.
15. Jabeen komunitateek haien betebeharrak betetzen ez badituzte, ofizioz esku hartzeko eskatzen zaie toki-administrazioei, eta ikuskapen-lanak indartzeko eskatzen da, lizentziarik gabeko obrarik egin ez dadin, kontuan izanda, gainera,

sarri ez dela irisgarritasun-araubidea betetzen. Kontsulta moduan iristen diren kasuetan, herritarrak, sarri, kexu ageri dira lizentziak eta baimenak ematen direnean ez direla irisgarritasun-baldintza egokienak bete daitezela eskatzen, eta administrazio guztien artean arinago eta koordinazio handiagoz jardun behar dutela adierazten dute maiz. Kexak adierazi izan dira udal batzuek, laguntza teknikoetarako lizentziak eman aurretik —hau da, eskailerak gainditzeko plataformak jartzeko lizentziak eman aurretik— ez dutelako egiaztatu arkitektura-oztopoak ken daitezkeela obra berrietarako arautzen diren irisgarritasun-irizpideak beteta (igogailuak jartzea zero kotan edo irisgarritasun-irizpideak betetzen dituzten arrapalak jartzea). Kexak izan dira, era berean, arauak salbuestea baimendu delako laguntza teknikoak erabiltzeko aukera zegoen egoeratan (erabilgarritasun-irizpideak), eta, gorago adierazi dugun moduan, plataforma zehiarrak jartzeko lizentziak eman direlako bertikalak jartzeko aukera zegoenean.

16. Jarraitu beharreko urratsei buruzko informazioa sarri eskatzen da, gastuaren proportzionaltasuna edo arrazoizko doitzearen kontzeptua argitu behar baldin badira.

17. Antzematen da ezjakintasun handia dagoela, bai eta ardura ere, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritako irisgarritasun-araudira egokitzeko partikularrek eta jabeen komunitateek eta horien betearazpena egiaztatzeko ardura duten administrazio publikoek exijitu beharreko epeen inguruan.

4.2.- Salbuespenen jakinarazpena – 2014. urtea

68/2000 Dekretuaren V. eranskineko —Birgaitze-, handitze- eta aldatze-lanak urbanizazioetan eta eraikuntzetan— 3.3. artikulua agintzen duena betetzeko, **104 expediente** jakinarazi zaizkio Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari, irisgarritasun-arauak salbuestearen esparruan.

01.14	Bilbo	Arangoitiko 137.01 egikaritze-unitatearen urbanizazio-proiektua. 1 bideko hasierako tarteko maldari salbuespen-izaera eman zaiola jakinarazi dute; izan ere, egikaritze-unitateari dagokion tartearekin konektatu beharko lukeen planteamenduan aurreikusitako bidearen egikaritzea, oraingoan, eragotzi egiten du jarduketaren lurrekin mugan dagoen hilerri batek. Gaur egun dagoen bidea beheagoko kotan dago eta ez du eragotzen bidea egikaritzea, egoitza-eremu berriaren zerbitzura, baina dakar araudiak gehieneko maldari buruz xedatutakoa ez betetzea (68/2000 Dekretuaren II. eranskineko – hiri-inguruneen buruzkoa– 3.2. artikuluko 3. zenbakia), horregatik eman diote salbuespena eskakizun hori betetzeari.
02.14	Basauri	Sarbideko arrapala egikaritzea Asturias kaleko 4 zenbakian. Salbuespenak eman dira, egikaritutako arrapalaren maldari dagokionez, higiezinaren baldintzetan oinarrituta.
03.14	Barakaldo	Igogailuaren ibilbidearen aldaketa zero kotaraino Andaluzia kaleko 4 zenbakian. Salbuespenak eman dira, igogailuaren kabinako dimentsioen inguruan (sakonera); izan ere, ez da hasi gaur egun dagoen kabinako ordezkapena, higiezinaren ezaugarriak direla eta.
04.14	Barakaldo	Igogailuaren ibilbidearen aldaketa zero kotaraino Castilla La Mancha kaleko 5 zenbakian. Salbuespenak eman dira, pasillo nagusien dimentsioei eta igogailuaren kabinako dimentsioei (sakonera) dagokienez, higiezinaren baldintzak direla eta.
05.14	Zarautz	Igogailua jartzea Nafarroa kaleko 39 A zenbakian. Salbuespenak eman dira, igogailuaren sarbidearen plataformen dimentsioei dagokienez, izan ere, eskaileraren eta behe eskaileraren dimentsioek esku-hartzea mugatzen dute.
06.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Balejo kaleko 30 zenbakian. Salbuespenak eman dira, igogailuaren kabinaren eta sarbidearen plataformen dimentsioei dagokienez eta eraikinaren egiturazko ezaugarrietan eta dagoen espazioan oinarrituta gauzatzen den arrapalari dagokienez.

07.14	Barakaldo	Ibilgailuaren ibilbidea aldatzeko obra, zero kotaraino, Resurrección M ^a de Azkueko 38 zenbakian. Salbuespenak eman dira, pasillo nagusien eta etxebizitza-solairuetako igogailurako sarbidearen plataformen dimentsioei dagokienez, espazio gutxi dagoelako eta forma-arazoengatik.
08.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Asturias kaleko 5 zenbakian. Salbuespenak eman dira, etxebizitza-solairuetan sarbideko plataformen neurrietan eta igogailuaren kabinako neurrietan, egiturazko ezaugarriak eta eraikinaren forma direla eta.
09.14	Barakaldo	Igogailua jartzeko lanak Castilla La Mancha kaleko 16 zenbakian. Salbuespenak eman dira, espazio-faltagatik, igogailuaren kabinako dimentsioei, beheko solairuan eta etxebizitzan solairuetatik igogailura sartzeko plataformen eta arrapalaren eskailera-buruaren dimentsioei dagokienez.
10.14	Getxo	Irisgarritasuna hobetzeko eta ataria berritzeko obrak, Basagoiti etorbideko 28 zenbakian igogailua jartzeko. Salbuespenak eman dira igogailuaren kabinako dimentsioei eta atearen zabalerari dagokienez, dagoen espazioagatik, nahiz eta eskaileraren zabalera murriztu den bi tartetan.
11.14	Getxo	Igogailua jartzea Ganekogorta kaleko 8 zenbakian. Espazio nahikorik ez dagoelako, salbuespenak eman dira igogailuaren kabinako neurrietan eta etxebizitza-solairuetan igogailura sartzeko maniobra-lekuetan. Erabilgarritasun-irizpideak aplikatzeari buruzko informazioa eman dute, zero kotaren eta igogailuaren lehen sarreraren artean dagoen desnibela libratzeko –plataforma bertikala instalatuz–, beste neurririk ezin delako hartu egiturari dagokionez.
12.14	Deba	Ifar kaleko 15 zenbakian plataforma jasotzailea instalatzea. Salbuespenak eman dira instalatutako plataforma jasotzailearen neurrietan –izan ere, dagoeneko ez dituzte fabrikatzen neurri handiagoko plataformak, gilbordura-arazoengatik eta segurtasunagatik– eta ez da kenduko atarian dagoen maila.

13.14	Zumarraga	Igogailua aldatzea eta ataria berritzea Secundino Esnaolako 8 zenbakian. Espazio gabezia oinarrituta, salbuespenak onartu dituzte igogailuaren kabinako neurrietan, igogailura sartzeko plataformen neurrietan eta arrapalen neurrietan.
14.14	Errenteria	Igogailua jartzea Salk eta Sabineko 1 zenbakian. Jakinarazi dute salbuespen-lizentzia eman dutela, baina ez dute salbuespenerako alderdien berri eman, ez eta justifikazioaren berri ere. Telefonoz ESKATU DA (943 449600) udal-teknikariaren txostena, espedientea osatzeko. Txostena aurkeztu da 2014ko otsailaren 24an, eta zehaztu da salbuespena igogailuaren kabinako neurrietarako eta haren atearen zabalerarako ematen dela, dagoen espazioa kontuan hartuta.
15.14	Barakaldo	Igogailua jartzea San Juan kaleko 15 zenbakian. Salbuespenak eman dira etxebizitzetako solairuetatik igogailura sartzeko plataformen eta igogailuaren kabinako neurrietan, espazio gutxi dagoelako.
16.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Bizkaia kaleko 21 zenbakian. Salbuespenak eman dira, espazio gutxi dagoelako, pasillo nagusien neurrietan, igogailura sartzeko plataformen neurrietan eta kabinako neurrietan.
17.14	Barakaldo	Igogailuaren ibilbidea aldatu da, zero kotaraino, eta arkitektura-oztopoak kendu dira, Eguskiagirre kaleko 4 zenbakian. Salbuespenak eman dira igogailura sartzeko plataformen neurrietan eta kabinako neurrietan, justifikazio gisa forma-arrazoiak erabilia.
18.14	Arrasate	Igogailua jartzea Elkano kaleko 4 zenbakian. Igogailuaren kabinako neurriak salbuetsi dituzte, eraikinak dituen neurrien ondorioz.
19.14	Gasteiz	Ataria aldatzeko lanak eta igogailua zero kotara jaitea Federico Baraibar kaleko 32 zenbakian. Igogailuaren kabinako neurriak salbuetsi dituzte, lehendik zegoen eskailera-zuloaren neurrien ondorioz.

20.14	Getxo	Arrapala egikaritzea atarira sartu aurreko eremuan (lursail partikularra), Venancio Etxebarria kaleko 19 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte arrapalaren maldetan, atariaren diseinu orijinalagatik.
21.14	Getxo	Plataforma bertikala jartzea Mercedes kaleko 7 bis zenbakian. Salbuespenak eman dituzte plataformaren neurrietan.
22.14	Gasteiz	Ataria aldatzeko lanak eta igogailua zero kotara jaitea Valladolid 4 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinako neurrietan, lehendik zegoen hutsunean dagoen espazioagatik.
23.14	Plentzia	Igogailua jartzea Erribera kaleko 9 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte solairu altuetako sarbideen aurreko neurrietan eta proiektuaren egileari justifikazioa aurkezteko eskatu diote.
24.14	Barakaldo	Igogailua aldatzea eta ibilbidea zero kotaraino aldatzea, Gernikako Arbola kaleko 72 zenbakian. Forma-arazoetan oinarrituta, salbuespenak onartu dituzte igogailuaren kabinako neurrietan eta igogailura sartzeko plataformen neurrietan.
25.14	Getxo	Arrapala egikaritzea Iparbide kaleko 17 zenbakian (Algorta). Salbuespenak eman dituzte arrapalaren maldan eta jakinarazi dute ez litzatekeela zentzugabea izango eskailera-igogailu bat jartzeko aztertzea, baina, hala ere, betetzeko salbuespena eman dute. Udalarekin harremanetan jarri da (944660000), 68/2000 Dekretuko V. eranskinaren aplikagarritasunaren berri emateko.
26.14	Erreneria	Igogailua jartzea Martin Etxebarria kaleko 7 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte barne-zirkulazioko espazioetako pasabideen zabaleretan eta jakinarazi dute, eraikinaren egitura-baldintzak kontuan hartuta, igogailua ez dela heltzen etxebizitzaren solairuen mailaraino.
27.14	Erreneria	Igogailua jartzea Resurrección M ^a Azkueko 37 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte barne-zirkulazioko espazioetako pasabideen zabaleretan, izan ere, espazio fisikoan eta egiturazko baldintzetan mugak daude.

28.14	Barakaldo	Igogailua jartzea eta eskailera patiotik berregitea Castilla León kaleko 7 zenbakian. Salbuespenak eman dira betearazpenean, pasillo nagusien neurriei dagokienez, etxebizitzetako solairuetan sartzeko plataformen neurriei eta igogailuaren kabinako neurriei dagokienez, eraikinaren ezaugarriengatik (formari lotutako baldintzak).
29.14	Gasteiz	Zaharberritzea Cruz Blancako 2 zenbakian (igogailua aldatzea). Salbuespenak eman dituzte aurreko igogailuaren ordeztu jartzen den igogailuaren kabinako neurrietan eta berriak neurri handiagoak baditu ere, jakinarazi dute ez dutela behar beste espazio araudiko aurreikuspenetara egokitzeko.
30.14	Barakaldo	Igogailua jartzeko lanak Autonomía kaleko 31 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte pasillo nagusien neurrietan eta bertara beheko solairuan sartzeko plataformaren neurrietan, dauden forma-arazoak kontuan hartuta.
31.14	Mundaka	Igogailua jartzea Ermenduru kaleko 5 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinako neurrietan eta eskailera-buruetan maniobra egiteko espazioan.
32.14	Barakaldo	Igogailua jartzeko lanak Encartaciones kaleko 12 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte egikaritutako arrapalako eskailera-buruaren neurrietan, etxebizitzaren solairuan sartzeko plataformaren neurrietan eta igogailuaren kabinako neurrietan, espazio gutxi dagoelako.
33.14	Getxo	Arkitektura-oztopoak kentzeko eta Ibaigane kaleko 9 zenbakiko igogailua zero kotara jaisteko obrak. Lizentzia emateari buruzko informazioa eman dute, baina ez dute jakinarazi salbuespenik eman dutenik araudia betetzeko.
34.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Letxezar kaleko 22 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte eraikinera sartzeko espazio libre horizontalaren neurrietan, etxebizitzaren solairuetako sarbide-plataformen neurrietan eta igogailuaren kabinako neurrietan eta bertako atearen zabalera, espazio gutxi dagoelako, nahiz eta eskaileraren zabalera murriztu den.

35.14	Zumarraga	Igogailua jartzeko berrikuntza-lanak Elgarrestamendi kaleko 4 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren sarbidearen zabalera eta igogailuaren kabinako neurrietan, eskailera-zuloaren neurriak direla eta.
36.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Arrandi kaleko 21 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte etxebizitzan solairuetan sarbideetako neurrietan eta igogailuaren kabinako neurrietan, espazio faltagatik, nahiz eta eskaileraren zabalera murriztu den.
37.14	Gasteiz	Igogailua jartzea Los Herran kaleko 32 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte beheko solairuko sarbidearen neurrietan, espazio-faltagatik.
38.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Juntas Generaleseko 44 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte arrapalara sartzeko bideen neurrietan, beheko solairuko sarbideetik igogailura sartzeko plataformaren neurrietan eta igogailuaren kabinako neurrietan, dagoen espazioagatik, nahiz eta eskaileraren zabalera murriztu den.
39.14	Errenteria	Igogailua jarri da eta eskailera birgaitu da Lope de Isastiko 8 zenbakian. Jakinarazi dute ezinezkoa izan dela irisgarritasunari buruzko araudira egokitzea, joan-etorriko pasabidearen zabalerei dagokienez, espazio fisikoan eta egiturazko baldintzetan dauden mugengatik.
40.14	Bilbo	Peñascalgo 740.01 egikaritze-unitatearen urbanizazio-proiektua Jakinarazi dute ibilbidearen luzerako malda mantentzen dela; izan ere, guneko orografiak ez du aukerarik ematen dauden koten aldeak murrizteko irtenbide teknikoetarako, Iturrigorri auzoa eta Uretamendi eta Betolaza auzoak lotzen dituzten bideak mantenduz.
41.14	Gasteiz	Ataria aldatzeko lanak eta igogailua zero kotara jaitea Puerto Rico kaleko 4 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinako neurrietan eta sarbidearen neurrietan, esku-hartzea egiteko espazioa kontuan hartuta.



42.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Ferrerías kaleko 48 zenbakian. Salbuespena eman dute igogailuaren kabinako neurriei dagokienez, espazio fisikorik ez dagoelako nahiz eta eskaileraren zabalera murriztu.
43.14	Iurretako elizatea	Uralde auzoko 6 zenbakian irisgarritasuna hobetzeko eta igogailua jartzeko ataria berritzeko lanak. Jakinarazi dute lizentzia eman dutela, baina ez dute zehaztu salbuespena eman den ala ez. 946201200). Teknikariaren txostena erantsi da (14.05.09), eta jakinarazi da, eskaileraren zabalera murriztu bada ere, erdiko zuloan dagoen espazioan, salbuespena eman dela, igogailuaren kabinako neurriei dagokienez. Jakinarazi dute ez dela estalkia apurtu, igogailuaren armazoa jartzeko eta solairu bakoitzean 1,40 m-ko diametroko zirkulua inskriba daitekeela.
44.14	Barakaldo	Santa Teresa plazako 3 zenbakian bi igogailuren ibilbidea zero kotara aldatzeko lanak. Salbuespenak eman dira bigarren mailako pasilloen neurrietan (ez dira betetzen formazioengatik sotoan) eta igogailuaren kabinako neurrietan (sakonera).
45.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Francisco Gómez kaleko 16 zenbakian. Eskuragarri dagoen espazioak behartuta, igogailura sartzeko plataformen neurriak salbuetsi dira etxebizitza-solairuetan, baita igogailuaren kabinako neurriak ere.
46.14	Amorebieta-Etxano	Lanak Gudari kaleko 6 zenbakiko atarian eta igogailua aldatzea. Jakinarazi dute lizentzia eman dela eta erabilgarritasun-irizpideak aplikatu direla, baina ez dute salbuespenen berririk eman, eta ez dute txosten teknikoa aurkeztu. 68/2000 Dekretuaren V. eranskineko aurreikuspenen inguruan informazioa jasotzeko deitu dugu (946300002).
47.14	Getxo	Igogailua jartzea Las Mercedesko 10 zenbakian. Salbuespenak eman dira igogailuaren kabinako neurriei eta tarteko eskailera-buruetan sarbideak edukitzeari dagokienez, eraikinaren egitura eta espazioak kontuan hartuta.

48.14	Durango	Igogailua jartzea Fray Juan de Zumárraga kaleko 3 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinako neurrietan eta irteera- eta itxaron-guneetan, espazio gutxi dagoelako eta forma-arazoak tarteko, nahiz eta eskaileraren zabalera murriztu duten.
49.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Cirilo Sagastigoitia plazako 2 zenbakiko atzealdeko fatxadatik. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren ateen sarbidearen zabalaren neurrietan eta beheko solairutik sartzeko plataformaren neurrietan. Era berean, salbuespenak eman dituzte etxebizitzetako sarbide-plataformetan (tarteko eskailera-buruan), eraikinaren formari dagozkion ezaugarriak eta espazioa direla eta.
50.14	Barakaldo	Igogailuaren ibilbidearen aldaketa zero kotaraino aldatzeko lanak La Calzada kaleko 12 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte beheko solairutik sartzeko plataformaren neurrietan eta igogailuaren kabinako neurrietan (sakonera), eraikinaren forma-arazoak direla eta.
51.14	Andoain	Igogailua jartzea Kale Berriko 16 zenbakian. Jakinarazi dute lizentzia eman dutela eta baimena eman dutela eskaileraren zabalera 70 cm-ra murrizteko, baina ez dute zehaztu salbuespenik eman dutenik irisgarritasun-araudia betetzeko. Telefonoz jarri gara harremanetan José M ^a Viguerearekin –943300830–, prozedurari buruzko informazioa emateko.
52.14	Barakaldo	Extremadura kaleko 1 zenbakian igogailua zero kotaraino aldatzeko lanak. Jakinarazi dute salbuespena eman dutela igogailuaren kabinako neurrietan (sakonera).
53.14	Santurtzi	Cartero Germaneko 12 zenbakian igogailua jartzeko lanak. Salbuespenak eman dituzte eskailera-zuloan jarritako igogailuaren kabinako neurrietan, dagoen espazioagatik eta eraikinaren aurretiko baldintzengatik.
54.14	Zumarraga	Igogailua jartzeko lanak Elgarrestamendi kaleko 6 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren sarbidean dagoen zabalaren, espazio gutxi dagoelako.

55.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Nafarroa kaleko 10 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren sarbidean dauden plataformen neurrietan eta igogailuaren kabinako neurrietan, forma-arazoengatik eta lekurik ez dagoelako eskailera-kaxa zabaltzeko.
56.14	Barakaldo	Igogailua jartzeko lanak Francisco Gomez kaleko 8 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte eraikinaren sarbideko espazio libre horizontalean, etxebizitza-solairuetatik sartzeko plataformaren neurrietan eta igogailuaren kabinaren neurrietan, forma-arazoengatik eta espaziorik ez dagoelako eskailera-kaxan.
57.14	Getxo	Villamonte A3n irisgarritasuna hobetzeko lanak eta igogailua jartzeko ataria berritzea. Salbuespenak eman dituzte, igogailuaren kabinaren neurrietan eta bertako atearen zabaleran, dagoen espazioagatik, nahiz eta eskaileraren zabalera murriztu den, esku-hartzea hobea izateko.
58.14	Bergara	Igogailua jartzeko lanak Ibargarai kaleko 20 zenbakian. Jakinarazi dute lizentzia emango dutela, baina ez da udal-teknikariaren txostena aurkeztu, emandako salbuespenen xehetasunarekin eta justifikazio egokiarekin. Harremanetan jarri gara Udalarekin –2014ko ekainaren 18a–, txostena eskatzeko (tel.: 943 77 91 40 M ^a Sol. Eduardo- arkitekto laguntzailea). 2014ko ekainaren 12an, udal-teknikariaren txostena bidali ziguten.
59.14	Barakaldo	Igogailua jartzeko lanak Vista Alegre kaleko 6 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte, igogailuaren kabinako neurrietan, espazio gutxi egoteagatik, jartzen den eskailera-zuloa zabaltzeko.

60.14	Erandio	Igogailuaren ibilbidea aldatzea zero kotaraino Etxegorri kaleko 4 zenbakian. Jakinarazi dute salbuespena eman dutela, baina ez da udal-teknikariaren txostena eman, emandako salbuespenen xehetasunarekin eta justifikazio egokiarekin. Harremanetan jarri gara Udalarekin –2014ko ekainaren 18a–, txostena eskatzeko (tel.: 944890100). Teknikariaren txostena eman dute (14-06-24), salbuespena zehazten duena, arrapalaren maldari dagokionez, atariak dituen baldintzak kontuan hartuta.
61.14	Getxo	Santa Eugeniako 32 zenbakian aparatu jasotzailea modernizatzeko eta geralekuak aldatzeko lanak. Jakinarazi dute geralekua sortu dutela zero kotan eta beste bat estalkipean; salbuespenak eman dituzte zirkulazioko barne-neurriei dagokienez eta igogailuaren kabinako neurrietan.
62.14	Gasteiz	Federico Baraibarreko 30 zenbakian ataria berritzeko eta igogailua zero kotara jaisteko lanak. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinako neurrietan, dagoen zuloaren neurriak direla eta (espazio gutxi).
63.14	Barakaldo	Igogailua jartzeko lanak Nafarroa kaleko 28 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte espazio libre horizontalari dagokionez eraikinaren sarbidean, eraikinaren atalasean dagoen desnibean, etxebizitza-solairuetatik igogailura sartzeko plataformen neurrietan eta kabinako neurrietan, forma-arazoengatik.
64.14	Gasteiz	Ataria berritzeko eta igogailua zero kotara jaisteko lanak La Floridako 62an. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinako neurrietan, zuloan dagoen espazio ezagatik, neurri handiagoa duen kabina jartzeko.
65.14	Azkoitia	Jausoroko 2 zenbakian bi igogailu aldatzea eta ibilbidea garajeraino aldatzea. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinaren neurrietan eta bertako ateen zabaleran, dauden neurriak direla eta.

66.14	Getxo	Lehenengoz okupatzeko lizentzia eman dute Andrés Larrazabaleko 7 zenbakian (botika) dagoen lokalean berrikuntza- eta handitze-obrak egiteko. Salbuespenak eman dituzte sartzeko arrapalaren baldintzei dagokienez, egiturari eta jabetzari dagokienez dauden arazoengatik.
67.14	Getxo	Getxoko Santa Mariako Angel etorbideko 4 zenbakiko lokala, gozogintzako eta okindegiko produktuak erakusgai eta salgai jartzeko (ez da ez fabrikatuko, ez laboratuko). Salbuespenak eman dituzte lokalaren sarbideari dagokionez, jabeen komunitateak ezezkoa eman baitio garajearen sabaiaren forjaketa eraisteko baimenari, lokalera sartzeko arrapala egiteko.
68.14	Agurain	Igogailua jartzea Salgorriko 10 zenbakian. Jakinarazi dute lizentzia eman dutela eta erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dituztela.
69.14	Agurain	Igogailua jartzeko lanak Salgorri kaleko 8 zenbakian. Jakinarazi dute lizentzia eman dutela eta erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dituztela.
70.14	Azkoitia	Igogailua jartzea Inazio Iriarte Margolaria kaleko 15 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinako neurrietan, eraikinaren sarbidearen neurrietan eta arrapalan, Alde Zaharrean dagoen higiezin batean esku hartzeak dauzkan mugak kontuan hartuta.
71.14	Erandio	Etxegorriko 4 zenbakian igogailua modernizatzeko lanak. Salbuespenak eman dituzte atariaren desnibela libratzen duen arrapalaren baldintzei dagokienez, higiezinaren mugak direla eta. Telefonoz jarri gara harremanetan (944890100) hirigintzako teknikariarekin, 68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren aplikazioaren berri emateko eta espedienteari erantsitako txostenaren alderdi batzuk egiaztatzeko.
72.14	Azkoitia	Igogailua jartzeko lanak Jausoro kaleko 2 zenbakian. Jakinarazi dute lizentzia eman dela, eta jarritako igogailuaren neurri txikiak eta atearen zabaleraren neurriak justifikatu dituzte.

73.14	Gasteiz	Ataria berritzeko lanak, igogailua zero kotara jaisteko, sarbide biko igogailua jarrita, Santiago etorbideko 26 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinako neurriei dagokienez eskakizunak betetzeko, instalatuko den zuloan dagoen espazioagatik.
74.14	Barakaldo	Igogailua jartzeko lanak Castilla León kaleko 12 zenbakian. Espazio gabezia oinarrituta, salbuespenak onartu dituzte igogailuaren kabinaren neurrietan eta beheko solairutik igogailura sartzeko plataformen neurrietan.
75.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Cataluña kaleko 3 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinaren neurrietan eta beheko solairuatik eta etxebizitza-solairuetatik igogailura sartzeko plataformen neurrietan, espazio gutxi dagoelako eta eraikinaren forma-arazoengatik, nahiz eta eskaileraren zabalera murriztu den eta lokal bati eragiten zaion.
76.14	Barakaldo	Igogailua jartzeko lanak Iparragirre kaleko 8 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinaren sakoneran eta etxebizitza-solairuetatik igogailura sartzeko plataformen neurrietan, eraikinaren forma-arazoengatik.
77.14	Barakaldo	Igogailua jartzea Letxezar kaleko 7 zenbakian. Espazio gabezia oinarrituta, salbuespenak onartu dituzte igogailuaren kabinako neurrietan, etxebizitza-solairuetan igogailura sartzeko plataformen neurrietan.
78.14	Basauri	Igogailua jartzea Antonio Trueba kaleko 5 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinaren neurrietan, egikaritzen den arrapalaren baldintzetan eta haren sarbidean inskribatu beharreko zirkulu librean, bestelako irtenbide bat gauzatzeak ekarriko lukeen aurrekontu alde neurrigabeagatik eta jabeen komunitatearen baldintza ekonomiko prekarioengatik.

79.14	Zaldibar	Arantzamendi kaleko 2 zenbakian dagoen higiezinako atariaren irisgarritasun-baldintzak hobetzeko lanak. Salbuespenak eman dituzte gauzatzen den arrapalaren baldintzetan eta haren hasierako eta amaierako sarbideetan, atariaren baldintza fisikoengatik.
80.14	Gasteiz	Iruñea kaleko 21 zenbakiko 01 behean dagoen lokala arrandegi gisa egokitzeko lanak. Salbuespenak eman dituzte, lokalera sartzeko baldintzetan, izan ere, bide publikoko eta lokaleko baldintzek eskatuko lukete garajeen partzelen altuera libreari eragitea eta aurrekontuan gehiegizko obra gauzatzea.
81.14	Gasteiz	Adriano VI kaleko 5 zenbakian ataria berritzeko eta igogailua zero kotara jaisteko lanak. Salbuespenak eman dituzte atariaren kanpoko arrapalarako, dagoen saneamenduroanbideagatik.
82.14	Donostia	Igogailua aldatzeko lanak Galtzada Nagusiko 22 zenbakian. Eskatu genuen (tel.: 943481954) udal-teknikariaren txostena emateko, emandako salbuespenak zehaztuta eta justifikatuta. Jakinarazi dute (2014-10-01) salbuespena eman dutela igogailuko kabinaren neurrietan, sartzeko eta irteteko gunetako espazioetan eta atearen gutxieneko zabaleran; izan ere, hartutako irtenbideak, eraikuntza-kontrolaren administrazioen iritziz, egokitzapen eraginkor globalaren maila altuenak dira. Era berean, jakinarazi da komenigarritzat jotzen dela solairuarteraren sarbidea libratzea, eskailera-igogailu baten bidez, 360 graduko biraketarekin.
83.14	Iurretako elizatea	Igogailua jartzeko eta ataria berritzeko lanak Zubiaurreko 7 zenbakian. Udal teknikariaren telefonoa behar dugu (946201200 tel) Posta elektronikoz bidali dute (14.10.3) eta jakinarazi dute salbuespena eman dutela igogailuaren kabinako neurrietan, ezinezkoa baita beste neurririk hartzea.
84.14	Basauri	Igogailua aldatzeko eta arkitektura-oztopoak ezabatzeko lanak Gernikako 32 zenbakiko atarian. Jakinarazi du salbuespenak eman dituztela atarian gauzatzen diren arrapaletako baten baldintzetan, ezinezkoa delako beste jarduketa bat gauzatzea.

85.14	Legazpi	Urtatza auzoko 54 zenbakian igogailua – ataria berritzeko lanak. Salbuespenak eman dituzte eskailera-zuloan eginiko igogailuaren kabinaren neurrietan, haren zabalera murriztuta.
86.14	Lasarte-Oria	Kale Nagusiko 51 zenbakian igogailua zero kotara jaisteko eta ataria berritzeko lanak. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren ateko zabalera, nahikotzat jotzen dutelako proiektuaren teknikari idazleak alegatutako ezintasuna.
87.14	Andoain	Igogailua jartzeko lanak Plazaola kaleko 17 zenbakian. Lokal pribatu baten zati baten eta eskaileraren zabalera murriztu dutela jakinarazi dute, igogailua jarri ahal izateko. Udaletxera deitu genuen (943300830), udal-teknikariaren txostena eman ziezagutela eskatzeko, irisgarritasunaren inguruan salbuetsitako alderdiei eta horien justifikazioari buruzkoa.
88.14	Bilbo	Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 807.01 jarduketa integratuaren Hirigintza Jarduketaren Programan adierazitako eremuko urbanizazioa. Jakinarazi dute proiektuak aurreikusten duela Basurto-Kastrexana errepidea Montevideo etorbidearekin lotzen duen ibilbide irisgarria egitea eta horrek bermatzen duela etorkizuneko eraikuntzetako sarbidea, berdintasun-baldintzetan.
89.14	Gasteiz	Eskudela jartzea Foru Plazan dagoen bolatokiaren sarbidean (babestutako kultura-ondasuna). Salbuespenak eman dituzte eskudelak alboetan 45 cm luzatzeko eskakizunari dagokionez; izan ere, espaloiko oinezkoentzako bidea inbadituko litzateke. Jakinarazi dute, espazioaren ezaugarriak direla eta (babestua), eskudela jartzeak, ohiko erabilera-baldintzak hobetzen baditu ere, lurpeko bolatokia ez duela bilakatzen espazio irisgarri edo erabilgarri.
90.14	Gasteiz	Manuel Iradierreko 13 zenbakian ataria berritzea eta plataforma jasotzailea instalatzea. Plataformaren neurriak salbuetsi dira, atariaren neurri estuak direla eta.

91.14	Lasarte	Andatza Plaza 1 zenbakiko behea berritzea eta zabaltzea. Salbuespenak eman dituzte kanpoko sarbidearen desnibelari dagokionez zabaldu den lokal berrian; izan ere, egiturazko elementua da eta beheko solairuaren goiko forjaketa osatzen du. Justifikazioa da gaur egungo forjaketa apurtzeak, haren azpiko egiturazko errefortzuak eta garajeen zona pribatuan jarduteak -horien inguruan eraginez-, gehiegizko kostu ekonomikoa ekarriko lukeela.
92.14	Lasarte	Antxota kaleko 5 zenbakiko behean dagoen lokala gaitzea. Salbuespenak eman dituzte egikaritu den bi arrapaletako bati dagokionez, lokalera sarbidea ematen dionari dagokionez, egokitzapenak ekarriko lukeen gehiegikeria ekonomikoa dela eta; izan ere, eskatuko luke beheratutakoa baino 8 cm gehiago beheratu behar izatea zolata eta berriro egin beharko litzateke, horrek dakartzan errefortzuekin.
93.14	Barakaldo	Igogailua jartzeko lanak Balejo kaleko 9 zenbakian. Jakinarazi dute erabilgarritasun-irizpideak aplikatu direla igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez, eskaileraren egungo zabalera murriztuz. Salbuespen-irizpideak aplikatu dira betearazpenari dagokionez, baina ez dira jakinarazi eta ez dira justifikatu 68/2000 Dekretuaren V. eranskineko 3.3 artikuluan aurreikusitakoaren menpe dauden alderdiak. Telefonoz jarri gara harremanetan 2014-11-17an Udalarekin (944789100), beharrezko informazioa eskatzeko, eta adierazi digute ez dela espediente honetan salbuespenik eman.
94.14	Barakaldo	La Felicidad kaleo 7 zenbakian igogailuaren ibilbidea zero kotara aldatzeko lanak. Jakinarazi dute salbuespena eman dela igogailuaren kabinako neurrietan.
95.14	Gasteiz	Alfonso XI kaleko 1 zenbakian ataria eta igogailuaren sarbidea berritzeko lanak. Jakinarazi dute erabilgarritasun-irizpideak aplikatu dituztela eta salbuespena eman dutela, igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez, ezintasun teknikoa dela eta.

96.14	Igorre	Igogailua jartzea Lehendakari Agirre kaleko 13 zenbakian. Jakinarazi dute salbuespena eman dutela igogailuaren atearen zabaleran, eraikinaren tipologiaren mugak direla eta.
97.14	Errenteria	Obra-lizentzia Biteri kaleko 2 zenbakian igogailua jartzeko. Salbuespenak eman dituzte barne-zirkulazioko espazioetako pasabideen zabalerei eta igogailuaren kabinako neurriei dagokienez, espazio fisikoan dauden mugak eta dauden egiturazko baldintzak kontuan hartuta.
98.14	Arantzazu	Zelaia auzoko 17 zenbakian dagoen lokala. Salbuespenak eman dituzte lokalaren sarbideari dagokionez; izan ere, neurriak kontuan hartuta, arrapala bat egiteak lokalaren azalera gehiena inbadituko luke eta, beste irtenbide tekniko batzuekin, okupazioari dagokionez gauza bera gertatzeaz gain, oso kostu handia ekarriko luke.
99.14	Barakaldo	Igogailua jartzea La Felicidad kaleko 8 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte eraikineko sarbideko espazio libre horizontalaren eta igogailuaren kabinaren neurrietan (zabalera) eta atearen zabaleran, eraikinaren forma- arazoengatik eta espazio gutxi dagoelako.
100.14	Zumarraga	Legazpi kaleko 3 zenbakian igogailua aldatzeko eta irisgarritasun-baldintzak hobetzeko lanak. Salbuespenak eman dituzte igogailuaren kabinaren neurriei dagokienez eta atearen zabalerari dagokionez; izan ere, nahiz eta irisgarritasuna hobetzen den, igogailua zero kotara jartzen delako, ez dago bestela jarduteko modurik.
101.14	Errenteria	Igogailua jartzea Resurrección M ^a Azkueko 18 zenbakian. Salbuespenak eman dituzte barne-zirkulazioko espazioen pasabideen zabalerei dagokienez, eraikinaren egiturazko baldintzengatik eta espazio gutxi dagoelako.
102.14	Elorrio	Igogailua jartzea Nizeto Urkizu kaleko 4 zenbakian. Ez dute aurkeztu udal-teknikariaren txostenik. Telefonoz eskatu genuen, 2015-01-12an. Doc-a aurkeztu dute (2015eko urtarrilaren 20a); udal-teknikariaren txostena kontrakoa da (kabinaren neurriak eta pasabideko zuloaren neurriak).

103.14	Elorrio	Igogailua jartzea Goieta kaleko 46 zenbakian. Ez dute aurkeztu udal-teknikariaren txostenik. Telefonoz eskatu genuen, 2015-01-12an. Doc-a aurkeztu dute (2015eko urtarrilaren 20a); udal-teknikariaren txostena kontrakoa da (kabinaren neurriak eta pasabideko zuloaren neurriak). Uste dute kostu handiagoa izateak ez duela esan nahi onargarria ez denik.
104.14	Gasteiz	Ataria berritzeko lanak, arkitektura-oztopoak kentzeko, Gasteiz etorbideko 11 zenbakian. Espazio gabezia oinarrituta, salbuespenak onartu dituzte igogailuaren kabinako neurrietan eta igogailura sartzeko atearen zabaleraren neurrietan.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilura bidalitako salbuespen-espeditente kopurua 2013koa baino ia % 28 txikiagoa izan da, eta 2013an baino udal bat gehiago dago Kontseiluari salbuespena jakinarazi diona.

Jabetza horizontaleko araubidearen mende dauden eraikinetan arkitektura-oztopoak kentzeko lanetan eman dira salbuespen gehienak (salbuespen horien xede izan dira, batik bat, igogailuaren kabinaren neurriei dagokiena eta igogailuetan sartzeko plataformei dagokiena, eta salbuespen horiek aztertu dituzten udal-teknikariak adierazi dute salbuespen horiek emateko arrazoi izan direla, batik bat, eskaileretan, atarietan eta eskailera-zuloetan nahikoa lekurik ez zegoela, eraikinek egiturazko mugak izatea eta bestelako irtenbideak garestiegiak izatea).

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari beren eskumenak baliatuz salbuespenen berri eman dieten udalak direla eta, salbuespenen % 55,76 (58 espeditente) 3 udaletatik datoz (Barakaldo, Gasteiz eta Getxo) eta, emandako salbuespen guztietatik, % 61,53 (64 espeditente) Bizkaiko udaletatik datoz, % 23,07 (24 espeditente) Gipuzkoatik eta % 15,38 Arabatik (16 espeditente).

Guztira, 28 udalek jakinarazi dute salbuespenen bat eman dutela 2014. urtean.

Lurralde historikoa	Udala	Salbuespenen kopurua
Araba	Gasteiz	14
Araba	Agurain	2

Lurralde historikoa	Udala	Salbuespenen kopurua
Bizkaia	Barakaldo	33
Bizkaia	Getxo	11
Bizkaia	Basauri	3
Bizkaia	Bilbao	3
Bizkaia	Erandio	2
Bizkaia	Iurretako elizatea	2
Bizkaia	Elorrio	2
Bizkaia	Durango	1
Bizkaia	Mundaka	1
Bizkaia	Santurtzi	1
Bizkaia	Plentzia	1
Bizkaia	Amorebieta-Etxano	1
Bizkaia	Igorre	1
Bizkaia	Zaldibar	1
Gipuzkoa	Arantzazu	1
Gipuzkoa	Errenteria	6
Gipuzkoa	Zumarraga	4
Gipuzkoa	Lasarte-Oria	3
Gipuzkoa	Azkoitia	3
Gipuzkoa	Andoain	2
Gipuzkoa	Donostia	1
Gipuzkoa	Zarautz	1
Gipuzkoa	Legazpi	1
Gipuzkoa	Deba	1
Gipuzkoa	Arrasate	1
Gipuzkoa	Bergara	1

Esanguratsua da oraindik, ISEKen udalen kopuru osoari dagokionez (251), Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari zer udal gutxik (28) eman dioten irisgarritasunaren inguruan indarrean dagoen araudia betetzeko salbuespena eman den lizentzien espedienteen berri. Era berean, deigarria da EAEn 2014an emandako lizentzia guztietatik, 104 espediente bakarrik izatea salbuespenak dituztenak.

5.- LAGUNTZA EKONOMIKOEN DEIALDIAK, UDALEK IRISGARRITASUN-PLANAK ETA IRISGARRITASUN-ALORREKO LANAK EGIN DITZATEN.

Abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak, arautzen du administrazio publikoek lau urteko programak egin behar dituztela lege horretan eta hura garatzeko arauetan ezartzen diren irisgarritasun-baldintzak susta daitezzen hiri-inguruneetan eta titulartasun publikoa, erabilera publikoa edo zerbitzu publikoko izaera duten eremu publikoetan, eraikinetan, garraioetan eta informazio-sistemetan, eta elementu horiek, pixkanaka, irisgarritasun-baldintza horietara egokituko direla berma dadin.

Plan edo programa horiek beraien baitan jaso behar dute egokitu beharreko eraikinen, kanpo-espazioen, garraioen eta komunikazioen katalogoa, jardueren lehentasun-hurrenkera bat ezarri behar dute, programa ekonomiko bat zehaztu behar dute, egin behar diren egokitzapenen kostuari aurre egiteko neurri ekonomikoak jasoko dituen, eta horiek egiteko egutegia adierazi behar dute.

Horren guztiaren helburua da pixkanaka egokitzen joatea irisgarritasun-araubideak arautzen dituen xedapenetara eta egokitzapen hori irizpide egoki batez egitea. Horretarako, ezinbestekoa da errealitatearekin bat etorriko den diagnostikoa egitea, konponbide-aukerak ematea eta baliabideen eta denboren plangintza egokia egitea. Agerikoa da abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak, plangintzaren alde egiten duela, eta ez inprobisazioaren alde.

Hori horrela, ***apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko*** arau teknikoak onartzen dituen, 2000ko abenduaren 12an jarri zen indarrean, eta hark ezarri zuen 20/1997 Legeak 13. artikuluan arautu zituen Irisgarritasun Planen edukia osatzeko oinarria.

Arau-esparru horren baitan egin dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko udalek beraien irisgarritasun-planak; hala ere, bada oraindik bere egitekoak bete ez dituen udalerririk. Udalerri batzuek ez dute lehen irisgarritasun-plana egin, eta, beste batzuek, berriz, lehen irisgarritasun-plana egin arren, ez dute hura eguneratu araubideak agintzen duen moduan.

Abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak, arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek berriazko aurrekontu-sailak ezarri behar dituztela haien aurrekontuetan, irisgarritasuna sustatzeko programak finantzatzeko.

Jarduketa-ildo horren baitan, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren helburu estrategikoa da birgaitze-jarduerak sustatzea, eraikinak eta ingurunea behar bezala egokitzeko Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak arautzen dituen xedapenetara. Helburu hori betetzeko, diru-laguntzen ildo bat erabiltzen du, irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko eta hiri-inguruneetako eta eraikinetako irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-lanak egiteko.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak 2013ko uztailaren 30ean emandako Aginduak 2014. urterako arautu eta deitu zituen irisgarritasun-planak egin edo eguneratzeko eta hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko hobekuntza-lanak egiteko diru-laguntzak, eta udalei, toki-erakunde txikiei eta onura publikoko xede sozialak dituzten erakunde pribatuei zuzendu zizkien (2013ko irailaren 10eko EHAA, 169. zk.), eta Etxebizitzako sailburuordeak 2014ko maiatzaren 15ean emandako ebazpenak (2014ko ekainaren 4ko EHAA, 45 zk.) araututako moduan ebatzi da:

1.- ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK UKATZEA udal, toki-erakunde eta onura publikoko xede sozialak dituzten erakunde hauei, zerrendatzen diren arrazoiengatik:

Ezezkoa emateko arrazoiak:

- (1) Deialdian eskatutako dokumentazioa falta da
- (2) Obra berria/erabilera-aldaketa
- (3) Ez da diruz laguntzeko moduko irisgarritasun-obratzat hartzen
- (4) Obra hori ez dago planean jasota
- (5) Aurrekontuko partida ez da nahikoa
- (6) Epez kanpo egindako obra

Araba

Aguraingo Udala

- Oinezkoen pasabideak, Sagarmin kalea (5)
- Mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuak, Apategi auzoa (5)

Dulantziko Udala

- Espaloia, Gasteiz bidea kalea 21 (5)
- Ohartarazle akustikoak semaforoetan (5)
- Baranda, Cuesta de las Cabras kalea (5)
- Espaloia, Gasteiz bidea kalea 14 (5)
- Espaloia, Gasteiz bidea kalea 21 eta Atxako kalea (5) Aiarako Udala ACC14-01-021-02 Plaza egokitua Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinaren aparkalekuan (5)

Artziniegako Udala

- Hobekuntzak hiri-ingurunean, A-2602 eta A-4624 errepideak (5)

Berantevillako Udala

- Kaleen errotulazioa (3) (4) (5)

Kuartangoko Udala

- Igogailua Kuartangoko bainuetxe ohian (2) (4)

Lantaróngo Udala

- Oinezkoentzako gaineko pasabidea, Ayuntamiento kalea(5)

Laudioko Udala

- Hegoaldeko espaloia eraberritzea, Lateorro HLHI (3) (4) (5)
- Arrapala eraberritzea, Lateorro HLHI (5)
- Ugarte plazaren birmoldaketa (3) (5)
- Oinezkoentzako lau pasabide eraberritzea, Zumalakarregi kalea (5)

Gaubeako Udala

- Pasabidea eta urbanizatzea Villanueva de Valdegovían (5)

Arkaiako Administrazio Batzarra

- Arkaiako hirigunea urbanizatzea (5)

Legutioko Administrazio Batzarra

- Santa Engracia hiribidea eta Beheko kalea urbanizatzea (5)

Luiaondoko Administrazio Batzarra

- Arkitektura-oztopoak kentzea medikuaren kontsultategiko eta zentro sozialeko sarbidean (5)

Rivabellosako Administrazio Batzarra

- Rivabellosa urbanizatzea, 4. eta 5. faseak (5)

Uribarri Ganboako Administrazio Batzarra

- Uribarri Ganboa urbanizatzea (3) (4) (5)

Gometxako Administrazio Batzarra

- TETrako sarbideen planifikazioa (3) (4) (5)

Bizkaia

Abanto Zierbenako Udala

- Peñucas auzoa urbanizatzea, 1. fasea (5)

Amorebieta-Etxanoko Udala

- Hiri-konexioa hobetzea, 2. fasea, Zubizabala pasabidea (5)

Balmasedako Udala

- Santo Domingo auzorako ibilbidea (5)

Basauriko Udala

- Arrapala ez mekanikoak jartzea Federico Mayo etxaldearen barrualdean (5)
- Federico Mayo etxaldearen barrualdea urbanizatzea (5)
- Espaloia handitzea Gipuzkoa kalean (5)
- Oinezkoentzako pasabideak Gipuzkoa kalean (5)
- Oztopoak kentzea Gipuzkoa kaleko 6 zenbakiko higiezinerako sarbidean (5)

Durangoko Udala

- Irisgarritasuna, Montevideo kaleko 7 zenbaki inguruan (5)
- Herritarrentzako arreta zerbitzua Liburutegian (5)

Eako Udala

- Hiriguneko kaleak urbanizatzea (5)

Elorrioko Udala

- Bustantz kaleko 2 zenbakian lokala berritzea gizarte-laguntzarako (2) (4)

Erandioko Udala

- Benjamín Anaia plaza urbanizatzea, 3. fasea (5)
- Benjamín Anaia plaza urbanizatzea, 2. fasea (5)

Etxebarriko Udala

- Irisgarritasun hobekuntzak herritarrentzako arreta zerbitzuan, udaletxean (2) (3)
